

BERTSOLARIA, FABRIKAKO LANGILEA, EMAKUMEA. JOXEPA ANTONI ARANBERRI PETRIARENA, XENPELAR. XIX-XX. MENDEETAKO ERREENTERIAR EMAKUME BATEN AHOTSA XXI. MENDEKO PLAZAN

Elixabete PEREZ GAZTELU

Resumen: Versolari, obrera, mujer. Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, Xenpelar. La voz de una errenteriarra de los siglos XIX-XX en el XXI

A falta de bibliografía específica en español, creemos conveniente aprovechar las páginas de esta revista del archivo municipal de Erreterria para recordar a la versolari erreteriarra Joxepa Antoni Aranberri Petriarena (1865-1943), una de las pocas versolaris anteriores a la guerra civil de las que se conservan datos de su vida y de su obra.

Presencia y ausencia

Antonio Zavala, fuente imprescindible para acceder a la literatura oral vasca, y a la de los versolaris en particular, es el primer autor que menciona a Joxepa Antoni Aranberri Petriarena. Lo hace por primera vez en 1968, en el último capítulo (págs. 211-287)¹ del libro *Erreterria'ko bertsolari zaarrak* (nº 74-75 de la

1. Para ser precisos, en el índice no se reproduce correctamente el segundo apellido de la versolari: dice Petriarena en lugar de Petriarena, pero a lo largo del capítulo se la denomina correctamente. También se cita correctamente el apellido del tío, Juan Frantzisko [o Frantzisko] Petriarena Berrondo, en *Xenpelar bertsolaria* (nº 88, 89, 90, Auspoa, 1969).

colección Auspoa²); antología de versolaris antiguos de Erreterria. De la inclusión de la versolari entre los improvisadores erreterriarras se desprende que, de hecho, Zavala la reconoce como formadora de esta tradición, junto a “Frailia”, “Telleri txiki” y otros seis versolaris de finales del XIX, primera mitad del XX.

No obstante, parece verse en la necesidad de precisar en el título del capítulo la procedencia de la creadora; de añadir que es sobrina del versolari *Xenpelar*: “Joxepa Antoni Aranberri (*Xenpelarren iloba*) (1865-1943)”. Ese subtítulo, además de precisar la información, puede inducir a pensar que la personalidad de la versolari depende de su vínculo familiar, de ser la sobrina de Juan Frantzisko Petriarena Berrondo, *Xenpelar*. Pero no sería justo omitir que, precisamente, gracias a la ingente e imprescindible labor recopilatoria y divulgadora de Antonio Zavala, y a que la haya mencionado y glosado entre los versolaris, la versolari *Xenpelar* tiene su lugar entre las voces de los versolaris erreterriarras. Zavala la menciona también en el libro que publica al año siguiente (1969), *Xenpelar bertsolaria* (nº 88, 89, 90 de Auspoa), fundamentalmente en el apartado dedicado a la biografía del versolari Petriarena. En una edición corregida y ampliada de 1993, *Xenpelar eta bere ingurua*, donde recopila el trabajo referente a *Xenpelar* (tío) y a versolaris de Erreterria y alrededores, dedica también el último capítulo a “Joxepa Antoni Aranberri Petriarena³ (*Xenpelarren iloba*) (1865-1943)”.

No es tarea fácil determinar todos los factores que han influido e influyen en la divulgación y presencia en la vida personal y colectiva de determinado autor o determinada obra. La voz de *Xenpelar*, tío, nos ha llegado en el ámbito privado a través de la transmisión familiar, pero también a través de la difusión pública directa (resultaron fundamentales los festivales en los que cantantes como Xabier Lete, Antton Valverde y Julen Lekuona cantaban versos de *Xenpelar*, *Txirrita*, *Xalbador*, *Bilintx...*) y a través de y gracias a la tecnología: las grabaciones de versos en discos han resultado esenciales para que generaciones posteriores hayan podido acceder a su conocimiento.

Joxepa Antoni Aranberri, *Xenpelar*, no ha tenido esa fortuna, hasta ahora. El recuerdo de su vida y de su obra se ha conservado gracias al quehacer paciente y dilatado de Antonio Zavala. Mejor dicho, gracias a que Zavala recogiera el testimonio de José Goñi, Florentina Pérez y Mónica Galarraga, que conocieron a la versolari, y compartieran con él sus testimonios. Los publicó, como hemos dicho, en los libros de 1968, 1969 y 1993.

Hasta la concesión (en su primera edición) del premio “Mariasun Landa” a Iñigo Legorburu por el artículo “Joxepa Anttoni Aranberri, *Xenpelarren itzalpean argi-izpi bat*”⁴ en 2011, la versolari erreterriarra permanecía, efectiva-

2. Toda la colección Auspoa está publicada en Internet, en la web de Euskaltzaindia: http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&Itemid=601&lang=eu&layout=auspoa_galeria&view=frontpage

3. Esta vez la denominación del segundo apellido es correcta.

4. “Joxepa Antoni Aranberri, una brizna de luz a la sombra de *Xenpelar*”.

mente, en la sombra (como bien indica el título del artículo de Legorburu), oculta (quizás) por la figura tan poderosa de su tío. La entrega del premio (en marzo de 2011) fue, a su vez, el acicate para que el Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Erreterria encargara a la autora de este artículo un estudio pormenorizado sobre la versolari.

Con los mimbres citados, junto a diversa documentación analizada, realizó dicho estudio que se publicó en euskera en la web del Ayuntamiento de Erreterria⁵, en abril de 2013. El estudio tuvo cierta repercusión en los medios de comunicación y la Asociación de versolaris se interesó también por él. Fruto de ese interés ha sido la realización de una unidad didáctica (elaborada por la *Gipuzkoako Bertsozale Elkarte*), que han trabajado dentro del currículo unos 600 escolares de Educación Primaria de Erreterria, a lo largo del curso 2013-2014, así como unas jornadas dedicadas a Joxepa Antoni Aranberri (*Bidaia bat Joxepa Antoniren bizitzan*), realizadas recientemente (octubre de 2014) en Erreterria. En definitiva, a los 70 años aproximados de su muerte, la versolari vuelve a estar presente en nuestras vidas.

Datos biográficos

Según el extracto de la partida de bautismo⁶, el 8 de enero de 1865 bautizaron en la parroquia de Nuestra Señora de la Asunción de Erreterria a “Josefa Antonia Aramberri Petriarena”, tercera hija de “Jabier Ygnacio Aramberri Elorza” y de “María Luisa Petriarena Berrondo”.

Sus dos hermanos mayores, José Francisco (bautizado el 28 de mayo de 1861) y María Pascuala (bautizada el 9 de marzo de 1863), tuvieron una vida muy breve. En las partidas de defunción de ambos dice que murieron “párvulos”; la defunción del hermano mayor está datada el 30 de mayo de 1861 (vivió tres días) y la de la hermana el 27 de agosto de 1867. Apenas convivieron dos años y medio las hermanas Pascuala y Joxepa Antoni. Joxepa Antoni tuvo posteriormente una hermana, Daniela, que también murió párvula: la bautizaron el 9 de diciembre de 1869 y la defunción está registrada a los 9 días; el día 18. Así pues, Joxepa Antoni se crió sin hermanos, y prácticamente sin madre, como veremos.

La madre de Joxepa Antoni, María Luisa Petriarena Berrondo, hermana de Juan Frantzisko *Xenpelar*⁷, fue bautizada en Oiartzun el 11 de mayo de 1833.

5. <http://erreterria.net/es/html/58/4015.shtml>. El estudio incluye algunos versos de Aranberri interpretados por Mirari Pérez Gaztelu, que también se pueden escuchar y descargar. También facilita vínculos para acceder a documentación y bibliografía diversa. Todo ello se puede descargar de forma libre.

6. Los datos proceden del Archivo histórico diocesano de San Sebastián, obtenidos a través de la aplicación informática <http://mendezmende.org/es>. Conviene usar el comodín para determinadas letras. Por ejemplo, el primer apellido de algunos de los miembros de la misma familia es en unos registros Aramberri y en otros Arambarri.

7. Bautizado en Oiartzun el 12 de enero de 1835.

Era versolari, como su hermano, pero carecemos de documentos escritos de su producción creativa. Se casó con “Jabier Arambarri Elorza”⁸, natural de Azkoitia, en la parroquia de Nuestra Señora de la Asunción de Errenteria, el 31 de octubre de 1860.

No sabemos con seguridad cuándo dejó el caserío Senperelarre (*Xenpelar*) donde vivía, ni a qué domicilio de la villa vino a vivir la familia Petriarena Berrondo, pero los datos del padrón de 1861 dan cuenta de que conviven en el mismo domicilio la abuela materna de Joxepa Antoni, Rita Berrondo, viuda⁹, la madre de Joxepa Antoni, M^a Luisa (ya casada), el tío José Mari Petriarena, la mujer de *Xenpelar*, María Josefa Retegi y la hija mayor de estos, Juana Josefa Petriarena Retegi. No se detallan ni la calle ni la casa donde viven, ni sabemos hasta cuándo vivieron juntos.

Tampoco sabemos dónde nació, en qué casa de Errenteria, la versolari Joxepa Antoni¹⁰. Los tristes acontecimientos de 1869 ponen en evidencia que no convivían todos en la misma casa, o, por lo menos, que la que ahora es la casa *Xenpelar* de la calle Magdalena no era la residencia de la familia Aranberri Petriarena.

Es conocido que en 1869 hubo una epidemia de viruela y que afectó a gran parte de la población de la villa. Según recoge Antonio Zavala, del 10 de octubre de 1869 al 17 de enero de 1870, la viruela causó en Errenteria 29 muertes. Los tíos de Joxepa Antoni, Juan Frantzisko *Xenpelar* y María Josefa, enfermaron y la madre de Joxepa Antoni, María Luisa, aún estando embarazada, dejó a su hija Joxepa Antoni y a su marido Jabier para ir a socorrer a su hermano y familia, que vivían en la casa antes citada de la calle Magdalena.

La viruela se llevó a gran parte de la familia: la cuñada murió el 25 de octubre de 1869 y su marido, el hermano de María Luisa, *Xenpelar*, el 8 de diciembre. Ese mismo día nació en la misma casa Daniela, la niña que llevaba en sus entrañas María Luisa cuando fue a cuidarlos. La partida de defunción de Daniela es del 18 de diciembre y la de María Luisa, la madre, del 19. Las tres hijas del matrimonio Petriarena Retegi, y primas de Joxepa Antoni (Juana Josefa (1860), M^a Luisa (1863) y Juana Manuela (1866)), sobrevivieron a la epidemia, pero parece que vivieron en otros lugares fuera de la villa de Errenteria.

Según los datos del padrón, Joxepa Antoni (apenas tenía 4 años cuando murió su madre) se crió con su padre, Jabier y con su abuela materna, Rita Berrondo,

8. En la partida de matrimonio el nombre y apellido del padre de Joxepa Antoni es Jabier Arambarri; distinta grafía a la de la partida de bautizo de Joxepa Antoni. Por su parte, en la partida de bautizo del padre dice: Xavier Ygnacio Arambarri Elorza. Bautizado en Azkoitia el 11 de abril de 1830.

9. La partida de defunción del marido, José Bernardo es del 23 de marzo de 1855.

10. Aunque Carmen Larrañaga en “Bersolaris destacadas” (1999) en el pie de la imagen de la casa de calle Magdalena asegura que Joxepa Antoni nació en esa casa. Véase la bibliografía completa en el estudio *Joxepa Antoni Aranberri ‘Xenpelar’ (1865-1943)*, publicado aquí mismo.

madre de los versolaris *Xenpelar*. Nos parece interesante destacar la importancia de la figura de la abuela, que no ha sido muy tenida en cuenta hasta ahora. Creemos que es muy probable que fuera la abuela, precisamente, quien transmitió a Joxepa Antoni desde niña la tradición y afición a los versos de los Petriarena Berrondo. Convivieron durante algunos años las tres personas en la calle de la Carretera (ahora calle Viteri): el padre, la abuela y la versolari, hasta que la abuela falleció, el 15 de julio de 1882. Joxepa Antoni tenía ya 17 años.

Mejor dicho, no convivieron tres sino cuatro personas¹¹ en el mismo domicilio, desde 1871 hasta que murió la abuela en 1882. El padre, que enviudó en diciembre de 1869, se casó por segunda vez con la irunesa Justa Bibiana Gorostiola Muñagorri, también viuda, el 6 de febrero de 1871, en Erreterria. Tras la muerte de la abuela, vivieron los padres y la versolari juntos, por lo menos hasta 1910 (según los datos del padrón). Joxepa Antoni tenía 45 años. Desconocemos cuándo y dónde murieron el padre y su esposa.

Sabemos que a partir de 1915, por lo menos, Joxepa Antoni vive en la calle Santxoenea, nº 25, con la modista Mikela Pérez Otegi y sus dos sobrinas: Matilde y Florentina Pérez. Matilde se fue monja, Mikela murió en 1934 y Joxepa Antoni vivió con Florentina hasta que murió, en 1943.

Afición, formación y oficio

Hemos mencionado antes la afición a los versos de Joxepa Antoni, afición heredada de la familia materna. También parece que heredó de su madre la inclinación a la lectura. El padre, sin embargo, no compartía ese interés por la formación intelectual de la hija. Según recoge Zavala, no veía bien que la niña leyera nada más que la Doctrina y la Biblia, ni le facilitaba los libros escolares que necesitaba.

No sabemos con seguridad hasta qué edad fue Joxepa Antoni a la escuela, pero en 1877 (con 12 años) ya trabajaba en la Fábrica de Lino, en la “fábrica grande” de la calle Santa Clara. En esa misma fábrica trabajaron los tres *Xenpelar* de la familia: Joxepa Antoni, María Luisa, y el tío Frantzisko. Joxepa Antoni fue una trabajadora industrial más en la villa fabril que era Erreterria en los albores del siglo XX.

El padrón de 1900 precisa que Joxepa Antoni es “tejedora”; el de 1905, “jornalera”; el de 1910 y el de 1921 que hace labores “del sexo”. Y el de 1940 dice que está “jubilada”. Mónica Galarraga, informante de Zavala, dice que Joxepa Antoni *Xenpelar* en la fábrica era contramaestra, que no era tejedora sino que desempeñaba otras labores: urdía la trama, el estambre. Joxepa Antoni perdió

11. Tampoco se había dado cuenta de este dato hasta nuestro estudio.

casi por completo la vista en 1923 y no la recuperó. Continuó trabajando, pero al final tuvo que dejar de trabajar en la fábrica, probablemente en 1937. En cualquier caso, tendría ya 72 años.

Versos y más

Desde la perspectiva actual, es interesante analizar los temas que motivan a *Xenpelar* a crear sus versos, ya que son un buen reflejo de su manera de pensar, de su actitud en la vida.

Varios versos están dedicados a temas religiosos (a procesiones, a la virgen María...); la iglesia católica tiene mucha presencia en su vida. También compone versos que reflejan la situación social en la que vive: en un verso se queja del descuido, del abandono en que tienen la ermita de la Magdalena, en otro da a entender que no andan precisamente sobrados de comida. También canta en la fábrica, interpretando, además, papeles de otras mujeres trabajadoras (¿y versolaris?). Y hay recogidos versos que parecen ser producto de encargo o motivados por celebraciones: cumpleaños, comuniones... Pero son dignos de destacar, por razones diversas, los versos dedicados a la guerra europea de 1914 (creados en 1917) y, en especial, los dedicados a las “solteronas” (1902).

En los versos sobre la “Gran guerra” la versolari toma parte claramente por Alemania y por el Káiser, y desprecia a Inglaterra. Podemos pensar que la ideología integrista y carlista del padre no es ajena a la de la versolari. Como curiosidad, merece la pena señalar que la música de partes del verso es la de la canción “París se quema, se quema París” (o “Berlín se quema, se quema Berlín”).

Los versos sobre las “neskazaharrak” (1902) son particularmente interesantes, porque a su valía, hay que añadir que son una buena muestra del arrojo de *Xenpelar*. Una mujer soltera de una pequeña villa guipuzcoana se atreve a escribir, en representación de las mujeres solteras, a la revista *Ibaizabal* que se edita en Bilbao para discrepar públicamente del contenido de los versos premiados por la revista. Versos escritos por el errenteriarra Enrique Elizetxea. La polémica dialéctica que mantiene la versolari con el escritor y con el cajista “editor” y “corrector” de la revista es de gran viveza.

El hecho de que se publicaran los textos les aseguró entonces cierta difusión y contribuyó, sin duda, a que pasados los años pudiéramos acceder a ellos. Gracias a la valentía de esta mujer podemos disfrutar en este siglo XXI de aquella polémica tan viva, y de aquellos versos y documentos periodísticos escritos en euskera hace ya más de un siglo.

La plaza de *Xenpelar*

¿Dónde podía cantar una mujer versolari, como Joxepa Antoni Aranberri *Xenpelar*, en aquella Errenteria de finales del siglo XIX e inicios del XX? Difícilmente en las mismas plazas que sus compañeros varones, que su propio tío; difícilmente en el espacio público: no podría optar a cantar desde los balcones de las plazas, como lo hacían en sus desafíos sus colegas hombres, y, menos aún en las sidrerías. No eran lugares (de ocio) para mujeres.

Además de en el espacio doméstico privado, ¿en qué espacios públicos podían reunirse, hablar, cantar... las mujeres? Los centros de trabajo, las fábricas de la Errenteria industrializada podían ser uno de ellos, ya que las obreras errenteriaras vivían muchas horas de su vida allí. Como hemos mencionado, Joxepa Antoni *Xenpelar*, por lo menos, le sacó provecho a ese lugar al que tanto esfuerzo dedicó. Pero, las mujeres compartían también otro tipo de espacios en los que desempeñaban labores manuales preferentemente. Los talleres de costura eran uno de esos espacios “femeninos” en los que ellas hablaban, rezaban, criticaban, reñían, reían, soñaban... y cantaban.

Xenpelar no trabajó en el taller de costura, no era costurera, pero convivió con las modistas y aprendices del taller de la calle Santxoenea. El taller era también su espacio. Y allí cantó, junto con otras mujeres, los versos de su tío, los de versolaris de la época, ¿los de su madre? Eso no lo podemos saber, pero sí sabemos que cantaba sus propios versos y que allí estaban, entre otras, Mónica Galarraga y Florentina Pérez dispuestas a escuchar, a cantar y a grabar en la memoria y en el papel los versos de Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, *Xenpelar*, nuestra versolari errenteriarra, para que, gracias a la tarea de Antonio Zavala en especial, llegaran a nuestros oídos y a nuestras plazas físicas... y virtuales. ¡Quién se lo iba a decir!

*Segidan erreproduzituko dugun obra Errenteriako Udalak Elixabete Pérez Gaztelu-ri enkargatu zion eta pdf formatu interaktiboan argitaratu zuten 2013an. Obra erabilgarri dago Udalaren www.errenteria.eus web orrialdean, baina, horrez gain, egindako lan eskergaren emaitza pape-
rera ekartzeko aukera ere baliatu nahi izan dugu.*

La obra que a continuación reproducimos fue encargada por el Ayuntamiento de Errenteria a Elixabete Pérez Gaztelu y publicada en formato pdf interactivo en 2013. Aunque está disponible en la página web municipal www.errenteria.eus no hemos querido dejar pasar la oportunidad de plasmar en papel también el fruto de la gran labor realizada.



*Nere denboran izandu diot
afizioa kantari,
inon bertsorik azaltzen bazen
erosi (e)ta irakurri;
umore ona lagun artean,
hori gustatu zait neri.*

JOXEPA ANTONI ARANBERRI

XEN PE LAR

(1865-1943)

Elixabete Perez Gaztelu

Lan hau egiteko Elixabete Perez Gaztelurengana jo dugu unibertsitateko Hizkuntzalaritzako irakaslea izateaz gain, herrikoa eta herriarekin konpromiso handia duen emakumea ere badelako. Aurkezpen txiki batekin hasi zen ibilbidea ikerketa sakon batean amaitu da eta Joxepa Antoni Aranberriren biziaren aztarna guztiak bildu ditugu. Jakin badakigu mimo handiz landutako testua dela. Asko estimatzen dugu lana egiteko Elixabetek izan duen prestutasuna eta txukuntasuna. Bihotzez eskertzen dizugu egindako lana.

Errenteriako Berdintasunerako Kontseilua

2011an I. Mariasun Landa “Emakumeei begiradarik onena” modalitateko saria eman izan ez baliote Iñigo Legorbururen “Joxepa Antoni Aranberri, Xenpelarren itzalpean argi-izpi bat” lanari ez geundeke hemen. Izan ere, Xenpelar esan eta, Juan Frantziskoz gain, inori –kanpoko nahiz erreteriarri– etorriko al zaio gogora emakume bertsolari bat, Xenpelar hau ere, izan zenik? Ezezkotan gaude.

Saria, eta idazlan haxe, ahotsik izan ez duen edo oso ahots apala izan duen emakume bati ahotsa emateko ahalegina da. Hizketagai dugu eta, honenbestez, bere neurrian, biziberritu dugu Joxepa Antoni Aranberri Petriarena. Ez da lehena lan hau, baina nahi luke arestikoak eguneratu eta, ahal dela, osatu. Gutxienez, hemen bere tokia du Joxepa Antoni Xenpelarrekin; ez da beste inoren adar edo atala. Bera da.

Saiatu gara Antonio Zavalak egindako lan handia eguneratzen eta XXI. mendeko irarkurleei hurbiltzen. Zehatzago esan, batez ere emakume hori bere garaian kokatzen eta iritsi zaizkigun lanetatik asma dezakeguna agerira ekartzen.

Ez dugu, oro har, emakume bertsolari askoren berri. Xenpelar honena bai, hainbat lagunek –emakume askok– horretan lagundu dutelako. Gure hau ere, nola ukatu, bada?, emakume baten ahotsaz doa kanpora.

Hemendik aurrerako ibilbidea iturrietan hasi eta iturrietan bukatzea nahi genuke, hurrengo iturrien iturburu izateko itxaropenarekin.

Iturriak, datuak nondik eta nola lortu? Auzo(en)lana

Esan beharrik ez dago euskal bertsoez, bertsolariez, bertsolaritzaz deus jakin nahi duenak euskal ahazko literatura mota horren hedatzaile ezin utzizko Antonio Zavala jesuita tolosarrarengana (1928.01.23-2009.01.02) jo beste erremediorik ez duela.

Denboran atzera egin behar izatekotan, lan honetan bezalaxe, egokia da ekartzea Zavalak 1993an Xenpelar eta bere inguruko bertsolariei eskaini zien lanean idatzi zuena, bertsoak biltzeko nola jokatu zuen, txoil zuzen ispiatzen baitu gisa honetako lanak egiteko metodologiaren, urratu beharreko bidearen nondik norakoa: oso hitz gutxitan esateko, gisa guztietako paperak miatu eta dakienari galdetu eta entzutea da bidea.

Zavalak, aurrenik, miatu ditu moldiztegitik ateratako bertso-paperak eta (balego) liburuak:

Bertso-paperak ez-ezik, moldiztegi maillako beste iru iturri ere izan nituan, Xenpelarren bertsoak ezagutu ahal izateko: Erreteriko Makazagak Xenpelar'en bertsoak izenarekin 1931 urtean argitaratu zuan liburua; Makazagak berak 1931 eta 1932-an kaleratutako Bertsolariya astekaria; eta Erreteriko Luis Jauregi apaiz jauna zanaren Xenpelar Bertsolaria Bizitza ta bertsoak liburua (Kuliska sorta, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1958). Baiña argitaraldi auetaz aurrerago patxaraz itzegingo degu. (Zavala 1993: 10).




Jose Goñi Iriberry, berri-emailea.
Goñi familia.

Kale zabalean eskura daitezkeen argitaralan ez ezik, artxiboek –batez ere udaleko eta elizako agiriek– oso informazio baliagarria eman diote:

Urrengo lana, Errenteriko eta Oiartzungo artxiboetan azterketa egitea izan nuan. Ango arduradunak ateak zabal-zabalik ipiñi zizkidaten, eta nere lana aal zuten aiñean erreztu ere bai. (Zavala 1993: 10).

Eta, jakina, bertsoak direla medio batez ere, gizon eta emakumeen ahoei dariena, bertsolaria eta haren lana gertuago nahiz urrunagotik ezagutu dutenek ematen dutena, iturri aberatsa da. Gizon-emakume batzuek gaitasun eta zaletasunagatik gainerakoek ez duten oroimena, oroitzapenak dituzte beren belarri-gogoetan eta, gainera, inguru eta geroagokoekin banatu eta konpartitzeko gogoia. Halakoak izaki Antonio Zavalaren berri-emaile izan ziren Florentina Perez eta Monika Galarraga [1969ko liburua ateratzear zegoela urriaren 28an 74 urte zituela hil zena “Oar triste bat”], Jose Goñi Iriberry (1895.05.28-1981.11.11) eta Pello Zabalera bertsolaria, besteak beste. Guztiak, inondik ere, katearen ezinbesteko mailak, batzuen oroimen hutsean gorde izan direnek bizitzarik izango badute. Lekuko hauek eutsi diote jakintza mota bateko kultur transmisioari.

Ondoren, argibide billa Errenterira joaten asi nintzanean, erri ontan norbaiten laguntza bear eta leenengo egunetan Jose Goñi zana izan nuan gidaria.





Jose Goñiren eskutitza Antonio Zavalari. 1967. (Koldo Mitxelena liburutegia. A. Zavalaren ondarea).

Errenteri zaarreko kontuak ondotxo zekizkiana zan ura, eta bai Xenpelarrenak ere. Beraren izena bein baiño geiagotan ikusiko du irakurleak liburu ontan berri-emaleen artean.

Beste iturri bat, benetan ugaría, bertako Pello Zabaleta bertsolaria izan nuan. Bere bertsoak emateaz gain -Auspoaren 74-75-garrenean aurkituko ditu irakurleak-, Xenpelar eta Txirrita ziranen gertakizunak eta bertsoak barra-barra eman zizkidan.

Beste berri-emale oparoa beraren koiñata izan nuan: Monika Galarraga, Juan Zabaleta bertsolariaren alarguna. Era berean, Florentina Perez Salaberria zanari ere asko zor dio liburu onek.

Bi andre aukeratu berdiña zuten nik bear nuan gaiak jakitun izateko: beren gazte-denboran Xenpelarren illoba batekin, Joxepa Antoni Aranberri Petriarenarekin alegia, eten gabeko artu-emanetan bizi izana. (Zavala 1993: 10).



Egunan ikusten
 pusa tuba degu,
 Rikardok maldan jertan
 laguntza nahi du,
 bost zigpa ta bi anai
 auzuan gande fu
 ez bideren Rikardo
 maiz Alzagu illandu.

Arko kutsatu sartut,
 ez oia da on,
 gaitzak in alepe
 kutsatzen zait neri,
 esan kardi yozu
 Martxel jaunari,
 ez asarretut gela
 jaso nio maiz eta mi.

Ez nuen arko aste
 aurtan Aladaleua,
 Alzaka tontoratu
 pasako nuen eta,
 zu etan bizi nuen
 onen amara,
 ez nuen idu jila
 gaur daukatela on.

Mala Erantzia

Mala Erantzia
 kutsatzen lau,
 alabakia zori
 nuen Donostia
 nere pentsamenduak
 orlatuak zian,
 gaur sartu dit tontoratu
 ordu negaratu.

Antonio Zavalaren eskuizkribua berri-emai-leei entzun bezala hartua. (Koldo Mitxelena liburutegia. A. Zavalaren ondarea).

Antonio Zavala kexu da, hain zuzen ere, Euskal Herrian aski berandu hasi gare-lako bilketan eta, horrenbestez, lekukotasun asko papereratu gabe denboraren joa-nak erremediorik gabe eraman ditu.

Askotan esan izan degu bertso biltzea berandutxo asi dala Eus-kal Errian. Iñoiz baiño nabarmenago ikusten da ori Xenpelarre-kin. Bertsolari onen bertso, gertaera eta argibide jakingarri asko eta asko betiko galduak izango dira, orain irurogei edo larogei urte bizi ziran aiton-amona bertsozaleei iñor galdezka joan etzitzaie-lako. An zan, adibidez, Senperelarren, gure bertsolariaren anai Juan Jose; baita alaba Maria Luisa eta illobak ere; eta Errente-rian bertan, berriz, beste illoba bat, Joxepa Antoni, 1943 urtean il zana. (Zavala 1993: 46).

Baina paperak bertsoari ematen dion iraupena ere, oraingoz iraunkorrena iza-nagatik, gerta daiteke aski ez izatea. Halaxe gertatu zitzairen Xenpelarren bertso askotxori, nonbait. Joxepa Antoni iloba tartean denez gero, lan honen bukaera aldean helduko diogu berriz gaiari.

Iñor ere joan ote zan oiengana galdezka? Bat bakarrik ingu-ratu zan, guk dakigularik, Joxepa Antonirengana. Baiña bisita ori, gero esango degunez, etzan iñola ere gure mesedetarako gertatu, Xenpelarren paperak galtzeko bidea izan baitzan.
(Zavala 1993: 10).

Bertsok ditugu hizpidean, eta bertsoa hitzek ez ezik doinuak ere egiten du, doinua bertsoarentzat helduleku eta gauzatzeko eta irauteko bidea da. Alde horretatik, ez dira inondik ere atzentezkoak lekukoen ahotik biltzailearen belarrie-tara eta handik pentagrama-rako bidea finkatzeko lana egin duten musikariak. Bela-rrien euskarri azpimarraga-rria da, grabazio ezean batez ere, musikarion lana.

Xenpelartar osaba-ilobez ari garela, aipa dezagun lehenik Anjel Dadie orga-nista sanjuandarra. Hark jaso zituen Xenpelarren doinuak (Joxepa Antonik ere kanta-tuko zituenak), 1931n Juan Jose Makazagak argitaratu zuen liburuko azalean ber-tan esana dagoen bezala: *Xenpelar'en bertsuak. Bere andiesle batzuk bildutako oleski-sortaren lenengo zatia, DADIE'tar Anjel txauneskindariak abesten zutenen eraz artutako ere-siak, alegia, gaurko modura aldatuta, "Xenpelarren han-diesle edo miresle batzuek bildutako bertso-sortaren lehenengo zatia [bigarren bat*



Bertsolariyaren ale berezia, Juan Jose Makazaga azalean duela.

gutxienez gogoan izango zuen Makazagak 1931n, nahiz, kaleratu ez kaleratu, iritsi ez zaigun] Anjel Dadie organo-jotzaileak (hots, *txadon* (eliza) eta *eskin* (musika) hitzak elkartuz organo (erdal itxurako) hitza sortu zuten eta egilea adierazteko –(d)ARI atzizkiaz eratu zuten *txaunes-kindari* hitza) haiek abesten zuten moduan hartutako kantu edo soinuak”. Makazagarentzat ere izango zuen, bada, balioa musikariaren lanak. Hona Antonio Zavalak 1969an nola jasotzen duen musikariaren zeregina:

*Dadie jauna
Pasai San Juan'go
organista zan, eta
gaur ere [1969
inguruan] ala da.
Berak esan digu-
nez, liburu ontako
doñu-mordoa onela
bildu zuan: lau edo
bost jai-arratsal-
detan, Txirrita ta beste lau bat bertsolari ta bertso-zalerekin juntatu
zan. Oietako bi, Errenteria'ko Juan da Pello Zabaleta bertsolariak
izango ziran, seguru asko. Txirrita zarra gurdi batean ekartzen zuten.
Dadie'k onela galdetzen zien: «Bertso auek nola kantatzen dira?» Ta
aiek bertso-doñu ura kantatzen zuten, bein ez ezik, lau edo bost aldiz
ere bai, Dadie'k ikasi arte, orduan magnetofonik ez baitzan.*

*Ta Dadie'k paperean jartzen zuan aiek kantatua, ta aiek kantatu
bezela jarri ere. Dadie'k berak esan digunez, aien kantua obetu zite-
kean, ta lan asko gabe obetu ere, bañan, bere iritziz, doñua aien aotik
atera bezelaxe utzi bear zan, ta ala egiten zuan. Ta ondo egiña, noski!*

*Dadie jaunak lan eder-ederra egin zuan orrela. Orain barra-barra
kantatzen diran zenbait doñu, Iparragirre'rena, mutil zarrarena, «Iya
guriak egin du» bertsoena, Balentin Berriotxoaren ta abar, berak jarri*



Xenpelar'en bertsuak. Juan Jose Makazaga. 1931.

zituan paperean lenengo aldiz. Baita andikan makiña batek ikasi ere.

Doñu oiek Donostia'ko Ambrosio Zatarain jaunak kopiatu ditu liburu ontan [Zavalaren 1969ko *Xenpelar bertsolarian*] argitaratzeko. «*Xenpelar'en Bertsuak*» deritzaion liburuak, iru langille izan zituan, beraz: Makazaga, bertso-biltzallea; Jauregi, itzaurrea erantsi ziona; ta Dadie, doñuak paratu zituana. (Zavala 1969: 57).

Eta, gerora, Dadieren lanaz baliatu ziren aita Zavala ez ezik (hortxe aitortzen duen bezala), baita Makazagaren liburuaren hitzaurregile Luis Jauregi "Jautarkol" apaiz errenteriarra ere, handik urte batzuetara, 1958an, plazaratu zuen *Xenpelar bertsolaria*. Bizitza ta bertsoak lanean.

Antonio Zavalak egindako liburuetan Ambrosio Zatarain (usurbildarra izanik ere Erreenterian urte batzuetan mediku izan zena) aipatuaz gain, Manuel Yaben (berastegiar hernanirratua) musikaria ere ekartzekoa da. Biak ala biak aritu ziren Zavalak hala eskatuta grabatutakoa letraldatzen.

1968ko *Erreenteria'ko bertsolari zaarrak* delakoan hauxe dio Zavala liburu paratzaileak:

An ta emen zenbait doñu arkituko du irakurleak. Zeñi jaso degun, aldi bakoitzean adieraziko da. Beti bezela, magnetofonotik paperera pasatzeko lana, Ambrosio Zatarain jaunak egin du. (Zavala 1968: 10).

Baita 1969ko *Xenpelar bertsolarian* ere:

Doñuak magnetofonotik artu ta idatzi dituztenak: Ambrosio Zatarain eta Manuel Yaben jaunak. (Zavala 1969: 6).

1993ko *Xenpelar eta bere ingurua* lan luzean du aukera Zavalak arestiko lanean kabitu ezinik liburutik kanpo utzi zituen *Xenpelarren bertso eta doinuak*



Xenpelar bertsolaria. Bizitza ta bertsoak. Luis Jauregi Jautarkol. 1958.

sartzeko. Musikaren munduan saltzeko ez diren bi gizon ospetsu, Resurrección Maria Azkue eta aita Donostia ere dira tartean. Barkatu aipuaren luzea:

Gure 1969-ko liburuan, Xenpelarren bertsoak kantatzeko doiñu-morkoska bat ere sartu genduan, iru iturri auetatik bilduta: Makazagaren Xenpelar'en bertsoak liburua; Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno bat; eta, azkenik, gerok erriaren aotik jasotako doiñuak.

Baiña Aita Donostik eta Azkuek badituzte beren bildumetan Xenpelarren bertsoak kantatzeko beste doiñu batzuk ere. Oiek ez genituan sartu gure 1969-ko liburuan, geiegi ez luzatzearren. Auspoaren neurriak, izan ere, ez dira aundiak, eta Xenpelarrena bestela ere naiko liburu lodia genduan.

Orain, berriz, Auspoaren Sail Nagusia onek leku zabalak izanik, alako bildurrik etzegoan. Orregatik, Azkue eta Donostiren bildumetako doiñu oiei ere, Xenpelarren bertsoak kantatzeko diranei alegia, liburu ontan leku eman nai izan diegu.

Laugarren doiñu-iturri bat ere izan degu. Azkue Euskal-Erri guzian zear ibili zan doiñu zaarrak biltzen. Baiña uzta osoa etzuan gero bere Cancionero popular vasco famatuan argitaratu. Baztarrera utzitako doiñuak ere bazituala esan nai degu. Oiek, berriz, beraren esku-idatzietan ezagutzeko zoria izan degu. Olakoak ere, Xenpelarren bertsoen letra dutenak noski, liburu ontan bear zutela dudarik ez da.

Era ortan, doiñu mordo ederra osatu degu; eta ez det uste orrekin liburu au asko aberastu egin dala esan bear danik.

Aita Donostik ere utzi zuan argitaratu gabeko doiñu-mordo ederra. Baiña altxor ori leenbaileen kaleratzeko asmotan lanean ari diranak badira. Xenpelarren bertsoak kantatzeko doiñuak or ere izango dira noski. Denbora asko gabe, beraz, musika aldetik aberatsagoa egingo zaigu bertsolari onen bertso-emitza.

Aita Donostik eta Azkuek bere doiñu oiek nun bildu zituzten ere esaten dute. Gipuzkoako mugak eragin eta beste euskal probintzietako erri-izenak ere arkituko ditu irakurleak. Orrek zera esan nai du: errenteriar aundi onen bertsoak Euskal-Erri guziko azken zokoetaraiño zabaldu eta iritxi zirala. (Zavala 1993: 11).

Eta halaxe egiten du liburuan zehar. Hona adibide gutxi:

Bertso auen doiñu bat Azkuek dakar, bere Cancionero popular vasco kanta-bilduman, 481 zenbakian. (91. or.); Bigarren doiñua, Arizkunen jaso, Azkueren esku-idatzietatik artua degu: (154. or.); Irugarren doiñua, berriz, Aita Donostiak agertu zuan,

bere Euskel Eres-Sorta bilduman, 1921, 213 zenbakian, Etxalarren jasota (112 or.); Amargarrena, Aita Donostiak Gure Herria aldizkarian argitaratua, 1931 urtean: (297. or.)...

Honenbestez, Zavala-Zatarainen bitartez iritsi zaizkigu batez ere Florentina Perez, Monika Galarraga, Jose Goñi eta Pello Zabaletaren aho-eztarriek kantatutako Juan Frantziskoren eta Joxepa Antoniren bertsoen doinuak.



Antonio Lekuona Matxio. 2011.



"Xepelar", Ayalde egindako erretratua, Matxio eredu hartuta. 1967.

Hitzak eta doinua izan dira eta dira bertsoak gorde, kantatu eta zabaltzeko ezinbesteko osagaiak. Baina egun ikus-entzunezko euskarriaren nagusitasuna (lan honena berarena) aipatu beharrik ez dago adierazteko paper-lanetan irudien laguntza badago irakurleari erakargarriagoa egingo zaiola, gertuago sumatuko baititu irakurtzen dituen horiek. Aita Zavala ere horretaz konturatua zen.

Estimagarriena bertsolariaren erretratu edo irudia da, baina ez da erraza batez ere garai bateko bertsolarien erretratuak izatea. Horiek ezean, bestera jo behar kantatu, bertso horiei gorputza emateko. Jakina da Xepelartzat daukagun gizonaren gorputza eta begitartea Antonio Lekuona Matxio oiartzuarrarenak direla. Antonio Valverde Ayalde pintore errenteriarrak (1915-1970) begiz jo zuen gizon hori eta eredutzat hartu 1969ko, Xepelarren heriotzaren urteurrenerako, ospakizunetarako. Horixe dugu hezur-haragizko Xepelar.



Joxepa Antoni eta jostundegiko neskak. (Antonio Zavalaren 1993ko liburutik hartua).

Joxepa Antoni Aranberriz, berriz, baditugu bi argazki, Zavalak liburura eramanak. Horien bitartez geure begiek ikus ditzakete bertsolariaren, Zavalaren lekuko Monika Galarragaren eta jostundegiko errenteriar neskatxa taldearen irudiak. Gainera, *Ayaldek* Joxepa Antoniren irudia ere egin zuen, argazkian oinarrituta.

Bestelako irudiek ere balio dute bertsolaria bere garai-giroetan kokatzeko: dela sorterrria, dela jaiotetxea... Hor kokatzekoa da, besteak beste, 1969ko liburuko azala, Xenpelar baserriaren argazkia. Argazki horrek ere baditu egileak: Boni eta Pedrotxo Otegi errenteriarak.

Azalean: Senperelarre baserriaren puskarik zaarrena, Xenpelarren aitak eragin zuana. Argazkia: Errenteria'ko Boni ta Pedrotxo Otegi anaiak egiña. (Zavala 1969: 6).

Esan beharrik ez dago zenbat auzoren lanaren ondorioz iritsi garen gauden egoerara: Antonio Zavala, Juan Jose Makazaga Mendiburu, Manuel Lekuona, Luis Jauregi *Jautarkol*, Evaristo Bozas Urrutia, Rodolfo Bozas Urrutia, Zabale-tarrak, Txirrita... bertsolariak, haien senide eta etxeak, Jose Goñi, Monika Galarraga, Florentina Perez, Anjel Dadie, Ambrosio Zatarain, Manuel Yaben, Antonio Valverde *Ayalde*, Pedro eta Boni Otegi... Bertso-biltzaileak, idazleak,



Joxepa Antoni eta Monika Galarraga jostundegiaren aurrean. (Antonio Zavalaren 1993ko liburutik hartua).




Joxepa Antoniren irudia *Ayaldek* eginak Antonio Zavalaren 1967ko liburuko moldiztegirako. (Koldo Mitxelena liburutegia. A. Zavalaren ondarea).

berri-emaileak, musikariak, irudigileak, inprimatzaileak, editoreak... Eta beste asko, bai Zavalak aipatzen dituenak –aipa dezagun adibide gisa, errenteriarra eta emakumea zelako– Jertrudis Arrieta Urdanpileta bertso-paperen gordetzailea (1993 baino lehen hila) eta beste makina bat, orain eta hemen izenik gabeak. Haien guztien auzolana gabe gure hau ez zegokeen.

Beste urrats bat auzolanean

Bistan da iturri askotatik edan dugula, batzuetatik zuzenean; beste batzuetako ura bitartekoen bidez iritsi zaigu. Gure



Xenpelar baserri zaharra. Antonio Zavalaren 1969ko liburuko azala.

honek ere beste urrats bat izan nahi luke auzolanean. Antonio Zavalak bezalaxe, guk ere paperak eta belarriak erabili ditugu, Zavalaren paperak, liburuak, deus baino lehen. Baina egun informazioaren teknologiak, Internetek, eskura dizkigu inoiz ez bezala informazioa, datuak aurkitu eta eskuratzeko abantailak eta horiei ere etekina ateratzen saiatu gara.

Berresan dezagun, bada, paper idatziak direla eta, Antonio Zavalaren lanak direla Joxepa Antoni Aranberri Petriarenarengana iristeko bide nagusia, nahiz emakume honetaz argitaratu zuen lehena ez izan: Evaristo Bozas Urrutia kazetariaren *Andanzaz y mudanzas de mi pueblo* 1921eko bilduma –1976an Rodolfo semearen euskal itzulpena, oharrak eta Koldo Mitxelenaren hitzaurrea zituela berriz argitaratu zena–, begi aurrean izango zuen, noski, Zavalak. Gu ere baliatu gara lan horretaz.

Zavalaren hiru liburutan ikusi dugu Joxepa Antoni Aranberri aipatua eta atalen batean landua. Osaba bertsolariaz ari ginela aipatu ditugun hiru liburuotan egiten dio lekua Joxepa Antoni Aranberri Zavalak. Auspoa saileko liburuak dira:

Erretereria'ko bertsolari zaarrak (74-75.z.) bilduma 1968koa. Joxepa Antoni Xenpelarri atal bat eskaintzen dio bertsolarien artean. Juan Frantzisko Petriarena Berrondo Xenpelarren heriotzaren lehen mendeurrenean, 1969an, kaleratutako *Xenpelar bertsolaria* (88-89-90) lanean ere aipatzen du iloba, Xenpelarren arreba Maria Luisaz ari dela, eta aipatu berri dugun Erretereriako bertsolari zaharren liburura bidaltzen du irakurlea. Eta handik urte batzuetara (1993) *Xenpelar eta bere ingurua* arestiko bi liburuetako gai bera Xenpelarren garaiko beste bertsolari batzuekin osatutako bilduma luzeagoan. Azken honetan Zavala baliatzen da 1968ko liburuan esandakoaz, osatu (besteak beste, Enrike Elizetxearen seme Manuelen (1904-1998) laguntzari esker) eta arestian aipatutako Joxepa Antoniren bi argazki edo erretratuak sartzen ditu, Ayalderen irudiaren orde. Azken liburu horixe hartuko dugu aipuen, bertsoen eta abarren iturburu.

Ikusten eta ikusiko den bezala, aipatu liburuetatik edango dugu etengabe. Behin Joxepa Antoni Aranberriren gaineko lan osatu samar hau esku artean genuela duda egin genuen berriz ere liburu horietako bertso guztiak hona ekarri edo ez. Azkenean pentsatu dugu irakurle-kontsultagileak badituela bai paperean eta baita Euskaltzaindiaren webean ere Zavalaren lan guztiak, Auspoa Saila begiztatu eta eskuratzeko modua, eta gure lana kopiatze hutsa bazen, alde horretatik behintzat, ez geniela ekarpen handirik egingo. Horrenbestez, kopiatu beharrean hobetsi dugu bertsoak tartekatuta, haietaz baliatzea egungo irakurleari argiagoa gertatuko zaiolakoan nondik ondorioztatu ditugun Joxepa Antoni Aranberriren gaineko ezaugarri eta gainerakoak.


Liburu eta artikuluko gehiago ere erabili ditugu lan honetarako. Ezin aipatu gabe utzi ditzakegu *Erretereriako Historia* –Erretereriako Udalak 1996an ar-

gitaratua, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi urte luzeetan artxibozaina izandakoak koordinatutako lan handia— ezta *Bilduma* eta *Oarso* udal aldizkariak ere: Joxepa Antoni garai-giroetan kokatzeko informazio ezinbestekoa daukate guztiek.

Artxiboetara ere jo dugu Antonio Zavalak idatzita utzi duena osatzeko eta euskarria emateko asmoz. Hauetara: Errenteriako Udaletxea, batez ere errol-detan bilatzera, Errenteriako Maria Donea Zeruratzearen eliza eta Donostiako Elizbarrutiko Artxibo historikora, eta Koldo Mitxelena liburutegira. Han eta hemen aurkitutako datuek balio izan digute batez ere Joxepa Antoniren bizitzaren berriak osatzeko.

Zavalaren bitartez iritsi zaizkigun Joxepa Antoniren bizitza eta lanak izen-abizenak dituzten lekukoei jaso-takoan oinarrituta egin zituen bertso-biltzaile eta edizio-paratzaileak, lehen jaso dugun moduan: Monika Galarra-ga, Florentina Perez, Jose Goñi, Pello Zabaleta, Manuel Elizetxea... dira tartean.

Joxepa Antoni ezagutu zuten berri-emaileoi beste bat daukagu eransteko: Milagros Gaztelu Izagirre, gure ama. 1921ean jaioa, eta 2012an oraindik ere, beharrik, oso oroimen ona eta



Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Rodolfo Bozas Urrutia. 1976ko edizioko azala.



Milagros Gaztelu Izagirre berri-emailea. Perez Gaztelu familia.

bizia duena. Milagrosek aipatu dizkigu xehetasun batzuk testu honen eta batez ere idazten ari den alabaren mesederako. Eskerrik asko, ama.

Nahiz eskribau lana Antonio Zavala gizasemeak egin, Joxepa Antoni bertsolariaren berri dakigu batez ere emakumeek gorde dutelako gogoan. Estimatzekoa da eta, seguruenik, gutxiegitan aitortua, emakumeek transmisioan (etxekoan batez ere) bete izan duten lekua.

Edizio honetan soinuak ere bere lekua behar zuela dudarik ez genuen. Aldea dago, gero, bertsoak irakurtzearen eta entzutearen artean. Teknologiak lagunduta, testu honen irakurleak aukera izango du, nahi izanez gero, Joxepa Antoniren bertso batzuk kantatuta entzuteko. Hautatu eta grabatu ditugu Zavalaren liburuetan partiturak dituztenetatik eta zein doinutan (demagun, “Markesaren alaba”) kantatzen diren zehaztuta dutenetatik batzuk. Mirari Perez Gaztelu kontraltoa iruditu zaigu egokiena emakume hari ahotsa jartzeko. Eresbilen, Jon Bagues eta Jon Minerren laguntzaz eginak dira grabazioak.

Amaian eranskin batean jaso ditugu kantatutako bertsoen izenak eta Antonio Zavalaren 1993ko liburuko orrialdea.

Koldo Mitxelena liburutegiak gordetzen du Antonio Zavalaren ondare aberatsa, *Auspoa* bilduma egiteko erabilitako dokumentazio guztia, edo ia guztia. Oraintxe Zavalaren grabazioak lantzen ari dira eta ez daude hona ekartzeko moduan, baina Joxepa Antoni Aranberriren gaineko lana egiteko berri-emaileen ahotsak entzun eta eskuragai badaude, ahaleginak egingo ditugu berandu baino lehen hemen ere bere txokoa izan dezaten.

Iruditegia osatzen ere ahalegindu gara irakurle-ikusleak ahalik eta bista osatuena izan dezan: Antonio Zavalaren lanetakoez gain, ahal izan dugunean lekukoen argazkiak, dokumentuenak, Errenteriako hainbat txoko (Joxepa Antoni bizi izan zen Santsoenea kaleko etxea barne) eta bestelako irudi argigarri iruditu zaizkigunak (berri-emaileenak, liburuenak...) eransi ditugu.

Testu idatzi honetatik loturak egin ditugu Interneteko web batzuekin (bataio eta heriotza-agiriak, Antonio Zavalaren biobibliografia, *Ibaizabal* astekariaren aleak...), irakurleak eskura eduki ditzan hemen erabili ditugunen atzean dauden dokumentuak¹².

Atarikoak argituta, emakume bertsolari honen bizitzan barrenduko gara, gidari eta lema Antonio Zavala hartuta. Esan beharrik ez dut auzolanean egindako lan honetan okerrik, gaizki ulerturik balego edo lan hau bere osoan gustuko gertatuko ez balitzaio inori, idazten ari den auzo honen eta ez beste inoren bizkarrean paratu behar dela okerra.

Abiatzeko koka dezagun bertsolaria jaiotetxean, sorterrian.

12. Formatu interaktiboan eskuragarri bakarrik.

Non sortu zen Joxepa Antoni Aranberri Petriarena?

Erreterian sortu zela dudarik ez dago. Zein kale eta etxetan sortu zen, berriz, seguru ez dakigu.

Gai honetaz ikusi dugun aipu bakarra Carmen Larrañagak egina da 1999an plazaratutako “Bersolaris destacadas” artikuluan. Xenpelar bizi izan zen eta herio-leku izan zuen Madalen kaleko etxea paratzen du Joxepa Antoniren sortetxetzat, *Auñamenditik* hartutako argazki baten oinean.

Datuak, berriz, Antonio Zavalak ematen dizkigu. 1861eko agirietan (Joxepa Antoni jaio baino lau urte lehenago) ikus daiteke Erreteriar kale-etxe batean bizi zirela Xenpelarren ama Rita Berrondo, Maria Luisa Petriarena alaba (Joxepa Antoniren ama), orduko ezkondua zen, anaia Jose Mari Petriarena (1865eko martxoaren 27an hila), Xenpelarren emaztea (Maria Josefa Retegi) eta hauen alaba zaharrena, Juana Josefa.

Eta arritu gaituana au da: ez Xenpelar eta ez onen koinadua, Jabier Inazio Aranberri alegia, ez dira oiekin batera ageri. Eta Padrón ortan ez degu beren izenik arkitu. Nora joanak ote ziran? Zergatik ez dira bakoitza bere emaztearekin bizi? (Zavala 1993: 33).



Xenpelar hil zen Madalen kaleko etxea. Eusko Ikaskuntza. *Auñamendi*.

Agiri horietan, zoritxarrez, ez da jasotzen zein kale eta etxetan bizi ziren, zein zeinekin bizi zen besterik ez, baina, nolanahi dela ere, Joxepa Antoni jaio baino lau urte lehenagoko datua da.

1869an, behintzat, ez dirudi etxe horretan bizi zirenik Aranb(a)(e)rri Petriarenatarak. Joxepa Antoniren ama, Maria Luisa, Xenpelarren arreba, baztangak jo zituen anaia eta familia zaintzera joan zen, senarra Jabier Inazio eta 4 urteko alabatxoak, Joxepa Antoni, etxean utzita. Antonio Zavalak jasotzen du senarrak arren eskatu ziola ez joateko anaia eta familia zaintzera, kutsatzeko beldurra zuen eta:

–Etzoazela, Maria Luisa! Bakarrik utzi bear al nauzu gure aur onekin? Eta emazteak erantzun zion:

–Ez, ez, ez! Ez naiz kutsatuko! Ondo aterako naiz! Lagundu egin bear diot, lagundu egin bear diot! (Zavala 1993: 39).

Maria Luisa, haurdun egonagatik, anaiarengana joan zen, ordea, eta hantxe hil 1869ko abenduaren 19an, Maria Josefa Retegi koinata (1869.10.25), anaia Juan Frantzisko *Xenpelar* (1869.12.08) eta, osaba hil zen egun berean sortu zuen Daniela Aranberri Petriarena alabatxoaren heriotzaren ondoan (1869.12.18).

Leen esan bezela, anaia abenduaren 8-an il zan. Egun berean, arratsaldeko zazpi t' erdietan, Maria Luisak aurra izan zuan: nexka, Daniela. Kutsatutakoen etxera bein sartu ezker, ateratzerik ez baitzegoan, anaiarenean izango zuan. Apaizak, Jose Ramon Irigoienek, etxean bertan presaka bataiatu zuan. Bearbada, Xenpelarri elizakoak ematera etorri zan apaiza izango zan.

Ez ziren etxe berean biziko Petriarena Berrondotar guztiak 1869an, hala izanez gero, egoera horrek ez bailuke zentzurik izango.

Honenbestez, jakin ez dakigu zehazki 1865ean zein etxetan bizi ziren Jabier Ignazio Aranbarri, Maria Luisa Petriarena eta Maria Paskuala Aranberri Petriarena, Joxepa Antoniren ahizpa zaharxeagoa.


Joxepa Antoni Aranberri (Aranbarri?) Petriarena familian

Joxepa Antoni Aranberri Petriarena 1865eko urtarrilaren 7an jaio zen, Errenterian. Maria Luisa Petriarena Berrondo eta Jabier Inazio Aranbarri Elorza zituen guraso. Maria Paskuala ahizpa 1863an jaioa zen, baina apenas ezagutuko zuen, Joxepa Antoni jaio eta bi urtera, 1867an, hil baitzen.

Esan dezagun artxiboetako paperetan, erroldetan, elizako agirietan ez direla beti bat etortzen deiturak eta datak. Honatx adibide batzuk: Aranberri edo Aranbarri zen Joxepa Antoni? Erroldetako batean ere Joxepa Antoniri bigarren abizena aldatu diote, Petriarenaren ordeaz aitaren bigarrena, Elorza, paratu diote. Xenpelar osabari ere antzera gertatu zaio urtetan: Petriarena izanik Petriarena aldatu izan diote eta Berrondoren ordeaz Rekondo jarri ere bai. Maiz, gainera, datu okerrak errepikatzen dira jatorrizko iturrian egiaztatu gabe.

Joxepa Antoniz beraz hitz egin baino lehen, sortu zen familian koka dezagun lehenik. Besteak beste, han edango zuen bertsoetarako grina eta izengoitia ere handik hartu zuen, amaren aldetik.

Aur ori bera zan, urteen buruan gauza auek kontatzen zitua-na. Leen esan degu-nez, Joxepa Antoni zeritzan, baiña Joxe-pa Antoni Xenpelar esaten zioten Erren-terian. Berarekin urte askotan bizi izan zan Florentina Perez Salaberriak sarritan entzun zizkion, eta bera izan genduan urteen buruan guri esan zizkiguna. (Zava-la 1993: 41).




Joxepa Antoni Aranberri Petriarenaren heriotza-agiria.

Ez zen lehen alaba izan, seme-alaba gehiago izan zituzten gurasoek. Zehatz dezagun, berriz ere, agiri guztiak ez datozela bat izendapenean: bataio-agiri guztietan aipatzera goazen lau senideek ArambErri Petriarena deiturak badituzte ere, heriotzako agirietan denek ez dute lehen deitura modu berean emana.

Jose Frantzisko izan zen lehena, 1861eko maiatzaren 28an jaioa. “Medikuak, Jose Inazio Etxartek, presaka bataiatu bear izan zuan, eta biaramonean il zan. Xenpelar izan aren aitapontekoa”. Heriotzaren agirian ArambArri Petriarena ditu abizenak. Hurrena Maria Paskuala ArambErri izan zen, 1863.03.09n jaio eta 1867.08.26an, Joxepa Antonik ia bi urte zituela, hila. Ondoren sortu zen Joxepa Antoni ArambErri (1865.01.07), honek ere osaba Juan Frantzisko, Xenpelar, izan zuen aitajaun. Eta gazteena, Daniela, jaio eta hurrengo egunean hil zen (ArambArri abizena du heriotzako agiriak), jaso dugun bezala. Joxepa Antoni ez beste hiru senideen heriotza agirietan “murió párvulo” zehazten dute. Lau seme-alabetatik bakarrak, Joxepa Antonik, lortu zuen bost urte baino gehiago bizitzea. Ama ere, zoritxarrez, ez zen asko bizi izan alabaz gozatzeko.

Jaso ditzagun etxekoen bizialdiak, bataio-agirietan datozen moduan idatzita.



Joxepa Antoni Aranbarri Petriarenaren bataio-agiria..

Ama. Maria Luisa Petriarena Berrondo


M^a Luisa Petriarena Berrondo, Joxepa Antoniren ama, Xenpelar anaia baino zaharxeagoa zen. 1833ko maiatzaren 11n bataiatu zuten, Oiartzunen.

1856ko datuen arabera Senperelarre edo Xenpelar izeneko baserrian bizi ziren: Juan Jose Petriarena Berrondo (Xenpelarren anaia zaharrena), 39 urtekoa, honen emazte Gregoria Retegi, 29 urtekoa, Rita Berrondo ama, 56koa, M^a Luisa (Joxepa Antoniren ama), 22 urtekoa, Katalina, 17koa, Juan Frantzisko (Xenpelar), 20koa, eta Jose Mari, 14koa.

Ez dakigu seguru Errenteriako zein kaletako etxera eta ez noiz joan ziren bizitzera Xenpelar baserritik etorritako Petriarena-Berrondotarrak. Pentsatzekoa da 1860ko hiribilduan zirela, Juan Frantziskoren, Xenpelarren, alaba zaharrena,

Juana Josefa, 1860ko martxoaren 13an Errenterian bataiatu baitzuten eta Joxepa Antoniren gurasoak ere urte bereko urriaren 31n Errenterian ezkondu baitziren.

Arestian jaso dugun bezala, 1861eko datuek diote Errenteriako kaleko etxe berean bizi direla Maria Luisaz gain, gutxienez, ama, anaia Jose Mari, koinata, eta iloba bat. Seguru ez dakigu non ziren biztanleen zerrenda egin zutenean Xenpelar eta Jabier koinatua, Joxepa Antoniren aita. Baina, lehen azaldu dugunaren arabera, ia segurutzat jo daiteke 1869an ez zirela guztiak elkarrekin bizi.



Senperelarreko biztanleak 1856an.

Emakume langilea zen Maria Luisa, etxetik kanpo, Fabrika handian lan egiten zuen anaiarekin batean, eta langilea etxean. Garai hartako gizonek ez bezala, lan-tegiko ehungintzako lan gogorraz gain, etxeko lan ez oso arinak ere bere kontu hartu beharko zituen. Hona Antonio Zavalak dakarren lekukoa:

Jai-arratsaldeetan, berriz, festa guzia maia kanpora atera eta karta-jokua izaten omen zan. Eta aztu aparria bear zutenik ere. Bitartean, Xenpelarren arreba Maria Luisa tripakiak jartzen aritzen zan. Astean lana besterik etzuana, jaietan ere lanean. Eta karta-jokuan ari ziranak, alako batean gogoratu eta esaten zuten:

–Oi, aparirik ez degu! Maria Luisak pronto eukiko ditu tripakiak! Arengana joan eta:

–Ardit baten tripakia ekaitzu!

Geroago, Mateonetik enkargatzen omen zuten merienda, batez ere sagardozaleak. Ango neskameak servilleta txuri-txuri bat bizkarreran artu eta beste batekin lurrezko kaxuela tapaturik joaten ziran merienda eramatera.

Arreba tripakiak maniatzen ari zan bitartean, anaia sagardotegian bertso kantari. Esan degunez, alki baten gaiñera igo arazten zuten:

–Ea, Prantxisku, igo ontara! Xenpelarren koiñadua garaiz eta txintxo erretiratzen zan. Etxean galdetzen zioten:

–Prantxisku nun duzu?

Eta arek:

–Prantxisku nun dedan? Orain asi da, alki gaiñera igota, bertsoa bota eta bertsoa bota... Auskalo noiz etorriko dan!

Olakoak izaten omen ziran anai-arreba aien jai-arratsaldeak.
(Zavala 1993: 35).

Fabrikako laneko atsedenean gizonen festarako jakiak prestatu behar Maria Luisak.

Leiala, ez sinistatzeko modukoa. Anaia ikaragarri maite zuena (anaiak ere alabetako bati arreba Maria Luisaren izena jarri zion). Bi seme-alaba hiltzen ikusi eta, hala ere, anaia zaintzea hobetsi senarraren, 4 urteko alabatxo Joxepa Antoniren, sabelean jaiotzeko zeraman laugarren umearen (Danielaren) eta bere buruaren gainetik. Anaiaren Madalen kaleko etxean topatu zituen gaitza eta heriotza, eta Jabier alargun eta Joxepa Antoni ama gabe utzi.

Bertsolaria zela esaten dute, anaia Juan Frantziskorekin aritzen zela bertsotan Fabrika handian eta bestela. Zoritxarrez, ez da gorde, guk dakigula, Maria Luisaren bertsorik. Ondare horixe utzi zioten Joxepa Antoniri. Halaxe aitortzen du Joxepa Antoni bertsolariak bertso batean baino gehiagotan, ama-osaben segi-ziokoa zela, Xenpelartarra. Lau bertsotan gutxienez bere burua Xenpelar edo Senpelartartzat dauka.

“Enhorabuena”

*Itz neurtu polit kariñosuak
dizkidatzute biali,
Senpelartarra izanagatik
zuen aldian deus ez ni.
Orren egoki ez bada ere
eskerrak nairik biali,
baita ere saltxa kazuela ontan
jartzen aritu danari.*

“Bakarka edo binaka”

*Inkomodatu gabetanik
bertso bat bakar-bakarra,
onek esan du guk daukagula
mingaña luze samarra;
demoniñoka eraso digu,
orrek beltza du adarra,
nere lagunak egiten dute
aldamenetik algara;
nik ordanikan ezin somatu,
auxen da nere ikara,
aiñ egokiyak jarri dizkigu,
akabo Senpelartarra!*

**[Moja doan Julianari
(azken?) agurra]**

Adios Juliana,
adios betiko,
Xenpelarrek etzaitu
geiago ikusiko;
bañan zu aztutzia
ori ez du naiko,
amak eskutitztxo bat
dizu bialiko:
Xenpelar il dela ta enkomendatzeko

**“Fabrikan bertso
kantari”**

Fanderitarra naiz ni,
ez dizut ukatzen,
bañan korta xamarra
bertsuak kantatzen;
damutu zait asiya
Xenpelar tentatzen,
ara emen Añabitarte
ta oni bat botatzen.

Emakume buru argikoa eta jakinzalea zen Maria Luisa, oso irakurtzeko zalea. 1861eko erroldak dio irakurtzen bazekiela eta idazten ez.

Egunez astirik ez, ta arratsean, oierakoan, jarduten omen zan, kinke bat piztuta. Batzutan, ordean, lo artzen zuan, ta bere ille kixkurak erre egin omen zitzaizkan bein baño geiagotan. Bestetan, berriz, senarrak argia itzali bear izaten zion. (Zavala 1993: 32).

Senarrak ez zuen zaletasuna zuen Maria Luisak; Jabierrek ez irakurtzen ez idazten zekien. Alaba, berriz, amaren aldeago atera zen aitarenera baino, baina alabak ezin izan zuen ama ia ezagutu. Ama falta eta amona Ritaz ere ez digute lekukotasunik utzi jakiteko zenbaterainoko eta nolako harremana izan zuen etxe berean bizi zen iloba Joxepa Antonirekin, bertsozaletasunean eraginik izan ote zuen, esate baterako.


Aita. Jabier Ignazio Aranbarri Elorza

Uste dugu amaren ildoak, Xenpelar izaki, neurri batean bederen ilundu duela aitak izan zuen lekua Joxepa Antoniren bizitzan. Izan ere, bertsolariak ama ez zuen ia ezagutu (4 urte zituela hil zen ama) eta, errolden arabera, aitarekin bizi izan zen gutxienez 1910a arte, alegia, aitak 80 eta alabak 45 urte zituzten arte. Pentsatzekoa da urteotako harremanak eraginen bat utziko zuela emakume honengan. Ikus ditzagun aitaren gaineko datu batzuk.

Aitaren bataio-agirian datu hauek daude: Xavier Ygnacio (ezagun du ez dutela Azpeitia oso urruti!) ArambArri Elorza (1830.04.11), Azkoitiko Ama Birjinaren Jasokundearen parrokiaren bataiatu zuten. Jaioteguna dela eta, Errenteriako erroldetan ez dago beti modu berean jaso: 1871ko eta 1905eko erroldetan 1830eko abenduaren 3a, 1900ekoan 1829ko abenduaren 4a eta 1910ekoan, berriz, 1827ko abenduaren 3a aipatzen dituzte. Bataio-agirian zehaztuak ziurtasun handiagoa ematen du erroldetakoak baino. Guraso zituen Manuel Aramba-

rri Zabaleta eta Josefa Elorza Oyarzabal. Antonio Zavalak dio Urrategiko Oiaun baserrian jaio zela.

Ez dakigu zehazki noiz etorri zen Erreteriarra. Jaso dugu 1861ean ez dagoela ez haren (ez koinatu Xenpelarren) izenik familia bizi den bizilekuan. 1871ko biztanleen zerrendak calle de la Carretera oraingo Viteri kaleko 117. zenbakian kokatzen du eta dio 10 urte daramatzala Erreterian bizitzen. 1900eko erroldan, berriz, 38 urte daramatzala (alegia, 1862an erreteriarra izan balitz bezala). Aspaldixeagotik beharko zuen, 1860an Erreterian ezkondu baitziren Jabier eta Maria Luisa.



1871ko errolda.

Ogibidea bilatu beharrak ekarriko zuen, seguruenik, Urola aldeko baserri hartatik industriad betetzen ari zen “Mantxester txikira”. Pentsa dezagun Erreteriarriak 1842an 1.651 biztanle zituela, 1860an 2.800 eta 1871n 3.223, lehen industrializazioaren eraginez. Joxepa Antoniren bizibidean ikaragarri handitu zen hiribildua; hil zen garaitsuan, 1940an, 10.106 biztanle zituen Erreteriarriak.

Jabier Ignazio ere halaxe etorriko zen, Gipuzkoako herri askotatik etorri ziren bezala. Gotzaindegiko artxibo historikoan ikus daiteke Azkoitiko elizan hiru arreba zaharrago ere bataiatu zituztela: Josefa Klaudia (1820.10.30), M^a Franziska (1823.07.21) eta Paula Grazia (1827.06.30), eta gazteago bat, Petra Marzelina (1833.06.03). Familia handi samarra teiltupe berean bizitzeko.

Bidenabar bada ere, zehatz dezagun guztiek AranbArri dutela deitura bataio-agirietan. Litekeena da Jabierren familiari Erreterian AranbErri aldatu izana, bertako hizketa moldera egokituta.

Agustin Mendizabalek 2012ko Oarso urtekarian “Luis del Puerto, espar-tingile kantaria (Erreteria, 1857-Andoain, 1934)” artikulua mamitsuan dioen

bezala, hizketagai dugun garaian alpargata edo espartingintza oso sektore garrantzitsua zen Gipuzkoako industrian; Kubarra eta Ameriketara ere asko esportatzen zuten. Gipuzkoako herri askotan zeuden langintza honekin lotutako enpresak; Erreenterian eta Azkoitian ere bai. Azken honetan ugari, gainera. Jabier Aranbarri azkoitiarra alpargatagilea zen (“etzitekean bestela azkoitiar jatorra izan”, dio Zavalak). 1871ko erroldak hala zehazten du, baina 1900 eta 1905eko erroldetan “camintero” lanbidea ezartzen diote. Alegia, bi ofizio izan zituen. 75 urteko gizona eta, artean ere kamioan, bidean lanean! 1910eko erroldan “jubilado” jartzen diote. 80 urte ditu.

Bi ofizio izanagatik (izateagatik?), aberatsa ez. Antonio Zavalak dio oso elizkoia zela eta (gaztetan Urrategiko elizatzuan, eta helduagoa zenean Erreenteriaiko elizan mezetan laguntzen omen zuen), behin Erreenterian mezetan laguntzen aritu zela lotsatu baino lotsatuago zapata-zolak hautsita zeuzkalako.

Elizkoia aita. Beharbada jaioterriak ere bere aztarna utziko zion Jabierri. Aitaren herriagatik galdetu eta Joxepa Antonik honela erantzuten omen zuen:

–Alabie inudie eta semie jesuitie, an ez dago besterik.

Parrandazalea ez zen, “txintxoia” baizik. Jai-egunetan Juan Frantzisko koinatua, Xenpelar, sagardotegian bertso-kantuan utzi eta Jabier etxera joaten zen.

Bi karlistaldi bizi behar izan zituen Jabierrek: 1833-1840koa eta 1872-1876koa, bigarrena Erreenterian bizi zela. Erreenterian liberalak ziren nagusi eta Oiartzunen karlistak. Karlista zen aita eta, geroxeago, alabaz aritzean esango dugun bezala, alaba ere bai. Aski zabaldua zegoen erreenteriar langile ehuleen artean karlistak izatea, enpresa-jabeei jarraituta.

1900eko erroldak zehazten du herritarrek idazten eta irakurtzen bazekiten. Horren arabera, Jabierrek ez daki ez idazten ez irakurtzen. Zaletasun handirik ere ez dirudi zuenik: ez zuen alaba bide horretatik gehiegi bultzatu nahi izan behintzat. Hona, berriz ere, Zavalak horren argigarri jasotzen duen pasadizo luze samarra, geroago baliatuko duguna:

Joxepa Antoni erriko eskolara joaten asi zanean, ikasteko gogo aundia agertu omen zuan. Ortan ere, bere ama zanaren antza aundia, beraz. Baiña aitak etzion eskola-libururik erosten. Alabak onela esaten omen zion:

– Maistrak erritan emango dit!

Eta aitaren erantzuna:

*–Ez dio inporta! Ez degu guk kastabelazko (sic) liburu bearrik!
Pregunta bear degu guk, pregunta! Ori ondo ikasi!*

Pregunta dotriña zan.

Alabak negarrari ematen zion. Eskola-bidean iturri bat zan. Antxe, eskolara baiño len, begiak garbitzen zituan. Lagun batek onela esaten zion:

–Nik utziko dizut liburua!

Ala, lagunaren liburutik ikasten zuan.

Pregunta ez-ezik, bere gustoko beste liburu bat ere bazuan aitak:

Testamentu zarreko eta berriko kondaira. Askotan, bazkalondoan-eta, onela esaten zion alabari:

–Au letu, au! Oso polita da ta! Alabak:

–Leen ere letu det nik ori, aita! Memoriz ere badakit!

Eta aitak:

– Bai, baiña oso polita da eta letu zazu berriz! (Zavala 1993: 549).

Oso zaharra ez zela erreumak jo eta ohean egon behar izaten omen zuen. Zavalak dioenaren arabera, Bigarren Karlistaldian behinik behin (1872-1876) –alegia, 40 urte inguru zituela– ondoezik zegoen. Urteen buruan “pixatik” gaixotu eta gaitz horretatik hil omen zen, aski oinaze eta lan pasatu ondoren: gauetan ezin lo egin eta arrosarioak errezatzen aritzen omen zen... Ez dakigu zehazki zein gaitz zen “pixako” hori.

Jakin ere ez dakigu noiz galdu zuen Joxepa Antonik aita. Zavalak ez du esaten, eta guk ere, eginahalak egin arren, ez dugu lortu jakitea, baina oso gaztea ez zen izango. Jaso dugun bezala, 80 urte gutxienez izango zituen, erroldaren bitartez badakigu 1910a arte bederen alabarekin bizi izan zela, Viteri kalean.

Har ditzagun, berriz ere, Zavalaren hitzak Joxepa Antoniren bizitzarako sarbi-dea izango dira eta.

Aita mundu ontatik joan eta bakarrik gelditu zanean, Joxepa Antoni auzoko familiarekin asi zen bizi izaten. Leen ere etxekoak balira bezela ziran, baiña arrezkeroztik aiekin erabat jarri zan. (Zavala 1993: 551).

Joxepa Antoni Xenpelar, kaleko bertsolaria

Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, Xenpelar hau ere, esan bezala, kalean jaio zen, Errenteriako kaleko etxeren batean. Gurasoak ez bezala, ez zen baserritarra, kaletarra baizik.

Kokatzeko esan dezagun Joxepa Antoni jaio zenean (1865ean) Erreterria lehen industrializazioaren goralditik (lehen arrastotzat har daitekeen Baionako enpresari batzuek Fabrika handia 1845ean ezarri zutenetik Bigarren Karlistaldia arte iraun zuenetik) beheraldian bizitzen ari zela (nahiz 1890etik aurrera berriz ere industrializazioa berpiztu zen). Erreterria langileen herria bihurtzen ari zen eta langile haietako bat izan zen Joxepa Antoni bertsolaria.

Bertsolari kaletar eta langileak honela aurkezten zuen, aldizka, jaioterria, Erreterria: langilea, leiala, noblea.


**“Erreterriyan uztaren
labeko prozesiyuari” (1926)**

*Relijioso eta pagano
aien danen iruriyak,
denbora gutxi bazuten ere
aiñ zauden ondo jarriyak;
langillia ta leiala dala
fama du Erreterriyak,
laguntzallia aiekin dala
danoi esker ugariyak.*

**“Madalenako ermita”
(1940)**

*Noblia ta leiala
da Erreterriya,
ezer egin nai badu
badauka premiya;
abundoso ipintzen
badigu ogiya,
urrengo urterako
ermita berriya.*

Joxepa Antoniren bizimodua dela eta, berriz, 1871ko erroldak begietara ekarri digu orain arte ez genekien zerbait. Maria Luisa ama hil ondoren (1869), calle de la Carretera, oraingo Viteri kaleko 117.ean etxe berean bizi dira “Javier Aramberri y Elorza”, 1830eko abenduaren 3an jaioa, 40 urtekoa, azkoitiarra, alpargatagilea, Erreterrian bizitzen 10 urte omen daramatzana eta ezkondua. “Maria Justa Gorostiola y Muñagorri”, ez du jartzen noiz jaioa den, 35 urtekoa, irundarra, 8 urte daramatza Erreterrian bizitzen, alpargatagilea; hau ere ezkondua. “Rita Berrondo y Lecuona”, 1800eko martxoaren 30ean Erreterrian jaioa; alarguna. Eta “Josefa Antonia Aramberri y Petriarena”, 1865eko abenduaren 7an Erreterrian jaioa, 6 urtekoa, ezkongai.



1871ko errolda.

Alegia, 6 urtetsuko Joxepa Antonirekin bizi dira, amona Rita alargunaz gain, aita, ezkondua, eta inon aipatua ikusi ez dugun eta errolda horretan jaioturtea bai (1835), baina eguna zehaztua ez daukan Maria Justa Gorostiola Muñagorri

Irungo alaba, hau ere ezkondua. Baina aita behinik behin ez al zuten alarguntzat jo behar? Maria Luisa emaztea zuena bi urte lehenago hila zen eta. Amonari horrelaxe jarri diote, “viuda”.

Internet bidez kontsultatuta ikus daiteke Errenterian 1871ko otsailaren 6an ezkondu zirela: Jabier Ignacio Arambarri Zabaleta eta Maria Justa Bibiana Gorostiola Muñagorri. Izenak ia osorik lehengo berak. Gotzaindegiko artxiboan ezkontzagiri jatorrizkoan xehetasun gehiago ikus daitezke. Hona agiriko datu garrantzitsuenak: “Jabier Ignacio Aramberri, Azcoitia, 41 años, viudo de M^a Luisa de Petriarena y Berrondo, natural de Oyarzun, e hijo de Manuel de Arambarri y Josefa de Zabaleta [hau okerra da, ama Elorza da], alpargatero y a M^a Justa Bibiana Gorostiola, Irun, 36 años, viuda de Francisco de Aramburu y Echeverria, fallecido en Rentería, hija de Tomás Gorostiola, Irun, labrador, finado en Irun, y de Josefa Antonia Muñagorri, natural de Berrobi y finada en las Américas”.

Dudarik ez dago, hortaz, Joxepa Antonik 6 urte zituela aita bigarren aldiz ezkondu zela, Justa Gorostiola Muñagorri irundarrarekin. Errenteriako Viteri kaleko etxean senar-emazte berriak, Joxepa Antoni eta amona Rita elkarrekin bizi izan ziren amona 1882ko uztailaren 15ean hil arte

Ez dugu ulertzen nolatan orain arte ez den adierazi Joxepa Antoniren aita bigarren aldiz ezkondu zela; inon ez dugu ikusi Justa Gorostiaga amaordearen berria. 1871n ezkondu ziren eta bigarren gerratea 1872an sortu zen. Orduan, nola ulertu behar dira Zavalaren hitzak? Amaordea eta amona (1882an hil zen) inon ez aipatzea? Mateonekoek 1869tik aita ezkondu arte, 1871 arte, besterik ez zuten hazi Joxepa Antoni?

Joxepa Antoni, lau urte bete baiño leen gelditu zan, beraz, amarik gabe. Baiña etxetik alde-aldean Mationia zeritzaion ostatua zan; eta ango etxeakoandreak, aurriz kupituta, bere kontu artu eta berak azi omen zuan.

Andik iru-lau urtera liberalen eta karlisten arteko bigarren gerratea piztu zan. (Zavala 1993: 548).

Gainera, hori oso ohikoa zen garai hartan. Lola Valverdek BUPeko ikasle talde batekin egindako “Rentería: demografía y sociedad. 1888-1905” (1985eko Oarso urtekarian argitaratutako) azterketaren arabera, “pasabideko egoera” da alarguntza, batez ere gizona alarguna bada: umeak eta etxea zaindu beharrak eramaten zituen berriz ezkontzera. Joxepa Antoniren aitak horixe egin zuen, bada.

1857ko Moyanoren legearen ondorioz, derrigorrez eskolaratu behar ziren 6 eta 9 urte bitarteko umeak. Lola Valverdek jaso dauka 1903an kaleko errente-

riar mutil guztiak eskolara joaten zirela, baina nesken % 73,3 besterik ez. Bistan da garrantzi handiagoa ematen zitzaiola mutilak eskolara joateari neskak joateari baino. Aski bat dator Joxepa Antoniri gertatu zitzaionarekin: jakin-mina izan, irakurtzeko zaletasuna, baina aita aldeko ez. Ezin jakin dezakegu irakurzailea zuen ama Maria Luisa biziz gero



Mateonea, Viteri kalean. 2012.

Joxepa Antonik gisa berekoa hezkuntza izango ote zuen.

Handik urte batzuetara egindako erroldan, 1900eko erroldan, Viteri kalean orain 37. zenbakia duen etxean, 2. solairuan Jabier, Justa eta Joxepa Antoni bizi dira. Amona Rita hila da. Jabier “camintero”, Justa etxekoandrea (“del sexo” jartzen dute) eta Joxepa Antoni, “tejedora” direla dio agiriak. Aita eta amaordeak ez omen dakite ez irakurtzen ez idazten. Joxepa Antoniri irakurtzen badakiela, baina idazten ezetz idatzia dago. Duda egiten dugu idazten ez zekiela. Joxepa Antonik 35 urte ditu eta ehulea da.

Eta etxe eta solairu beretan auzo dituzte Dolores Otegui Otegui (1829an jaioa) [bigarren abizena seguru aski Arrondo da, 1894ko apirilaren 22an hil zen Francisco Javier Perez Fernandez alarguna], tolosarra, Erreterian 11 urte bizitzen daramatzana eta alaba, Micaela Perez Otegui, 34 urteko jostuna (“costurera” dio), 1866ko urriaren 10ean jaioa, Erreterian 14 urte daramatzana. Amak ez daki ez irakurtzen ez idazten, alabak bai. Mikela da ia adinkidea duen Joxepa Antoniren bizitzan gune esanguratsua izango den jostundegiko maistra.

1900 urtea arte galarazia zegoen 8 urtetik beherako umeek lan egitea. Urte horretatik aurrera 10 urtera igo zen muga, nahiz debekua beti betetzen ez zen eta ume gazteagoek lan egiten zuten. Ez dakigu noiz arte ikasi zuen Joxepa Antonik, 9 urterekin utzi beharko zuen eskola? 12 urterekin (1877) hasi zen lanean Fabrika handian, ama, osaba Xenpelar eta beste makina bat erreteriar eta erreteriaritu bezala.

1900eko errolda.

Langileen bizimoldea ez zen samurra, inondik ere: 10-12 orduko lana egunean, larunbata barne, jornal miseriazkoa (ogi kiloak jornal erdia balio zuen eta haragi kiloak jornal osoa). Emakumeen egoera are gogorragoa zen lantegiko lan gogorraz gain (ehuletza batez ere oso lan latza zen) etxeko lan guztiak ere bere gain eraman behar baitzituzten, egun, 2012an, horren ohikoak ditugun garbigailu eta antzeko tresnak gabe.

Adibiderako ekar dezagun lehen ere aipatu dugun Agustin Mendizabalek Miguel Angel Barcenillaren *La pequeña Manchester* lanetik jasotako datuok: “ehuleen artean, 1864an jaiotakoen bizi itxaropena 23 urtekoa zen eta nekazariena berriz, 44’3 urtekoa [...] Umeen heriotza tasa ikaragarria zen, eta tuberkulosia zen hiri barnean heriotza kausarik ohikoena; emakumeak, bestalde, gizonezkoak baino are gazteago hiltzen ziren, batz bestea. Osasun eta bizi baldintzak, goimaila sozialekoak ez zirenentzat oso gogorrak ziren”. Joxepa Antoni, esana dago, ehulea eta emakumea zen.

Nolako emakumea ispiatzen zaigu bertsoetan?

Lanean hasi zenean, gorputzez oso handia ez zen Joxepa Antoni eta ogia irabazteko disimulatu behar zuen, lan egingo bazuen:

*Artean txikia zan, noski; eta eskola-liburua uzten zion lagun
arek berak, zapata koxkordunak utzi zizkion, onela esanez:*

– *Aundiagoa emango duzu auekin. Bestela, nagusiak igual bialduko zaitu, txikia zerala ta! Buruko pañueloa ere janzten zuan, atso zaarrak bezela, errespeto geiagokoa zalakoan. Pañuelo orri ttattarra deitzen zitzaion.*

Pasarte hori jaso dugu erakusten digulako Joxepa Antoniren ezaugarri bat: ausarta zen, borroka egin gabe amore ematen ez zuena, ataka zailetatik ateratzeko irtenbideak bilatzen saiatuzalea.

Lanera joateko ttattarra eta zapata koxkordunak erabiltzearen ondoan, ekar ditzagun beste bi Joxepa Antoniren ausartziaren adibide.

Joxepa Antonik, aitaren ildoan, umetatik, nonbait, karlistatzat zeukan bere burua. 7-11 urte bitartean zituela honelako pasadizoa izan zuen Erreterian nagusi ziren liberalekin. Hona Zavalak jasotzen duena:

Soldaduak [liberalek] bazekiten nexka koxkor aren familia bereetakoa etzana, eta tentatzen asten zitzaizkion. Bai Joxepa Antonik aguro erantzun ere;

– *Zuek danak inpernura joango zerazte, beltzak zerazte ta! Baiña aiek etziran aserretzen. Parra egin ondoren, propina ere ematen zioten, eta Joxepa Antoni pozik bueltatzen zan etxera bere xoxekin. Etxekoak onela esaten zioten gero:*

– *Au ume lotsagabea! Aiekin ola ariko zera ba?*

Baiña Joxepa Antonik etzuan amor ematen:

–*Bai; gaiztoak dira danak! Inpernura joango dira, beltzak dira ta! (Zavala 1993: 548).*

Neskazarren gaineko desafio sonatua ere ekarriko dugu bigarren. Plazaralekua *Ibaizabal* Bilbon kaleratzen zuten aldizkaria izan zen. Arestiko gertakaria baino geroagoko kontua da, 1902koa, Joxepa Antonik orduko 37 urte bazituen (eta ez 30 Bozas Urrutiak liburuan jartzen duen bezala) eta aita bizi zuen. Carmen Larrañagak “Del bersolarismo silenciado” lanean ez du datu hori ongi eman:

no sabemos, como tampoco sabemos a qué edad irrumpió de forma activa al bertsolarismo. Parece que en Rentería había entonces una gran afición por su práctica, y eran diversos los espacios en los que se cantaba, tal que ciertos talleres de costura como el que a partir de un momento comenzó a frecuentar Joxepa Antoni. Y lo hizo coincidiendo con la muerte de su padre, ya que la orfandad que esto le supuso fue aliviada con la protección de Matilde y Florentina, dueñas de un taller de costura en el que se enseñaba a coser a muchas jóvenes. (Larrañaga 1997: 65). (Letra lodiz markatua gurea).

Zavalak luze azaltzen du gertatutakoa. *Ibaizabal* aldizkariak 1902ko otsailaren 9ko alean sariketa bat antolatu zuen bertso-gile ezezagunentzat. Bi bertso-saio onenak aldizkarian bertan argitaratuko zituzten. Sariak: euskal liburuak eta *Ibaizabaleko* harpidetza. Ondoren jasoko ditugun hitzek adierazten duten bezala (“mutillak”), ez zitzairen gogoratu antolatzaileei emakumeek ere sariketan esku har dezaketenik.

Ez etorri mutillak, negarrez edo serio; bertso alai edo alegreak egin eizuez. Barre egin daigun, negar geuk gura eztogula egin bear izaten dogu, guro dogun baiño sarriagota. (Letra lodia gurea).

Gaia aldizkariak paratzen zuen, baina baldintza zen alai landu behar zirela gaiak. Lehen sariketako gaia “Taberneruen bizimodua”, bigarrenarena “Aguazillaren bizimodua”, hirugarrenarena izan zen “Neskazarrek” (eta laugarrenarena “Mutilzarrek”). Bigarren sariketako bigarren saria Enrike Elizetxea errenteriarrek irabazi zuen. Laugarren sariketako (mutilzaharren gaineko) irabaztunen artekoa ere izan zen Elizetxea, 1902ko ekainaren 8ko alean bertsoak argitaratu zituzten eta. Hirugarrenean, neskazaharren gainekoan, lehen saria eraman zuen. 1902ko apirilaren 13an argitaratu zituzten.



Enrike Elizetxea.
[Iñigo Imaz,
Bilduma 20 (2007)].

Hauxe zuen hasiera:

*Enpleatzen ez bada
gazte dala neska,
pasa bearko ditu
makiña bat kezka,
burutik zoraturik
senargairik ez ta ...
Orra azkenerako
neskazarren festa!*

Hemezortzi bertso luzetan Elizetxeak neskazarrek aurkezten ditu nahi bai, baina gizonik harrapatu ezin izan duten emakumetzat joz, beti elizan sartuak, mihiluzeak, kon-takatiluak, itsusiak... eta antzeko aje eta kontu beltzak dituztela.

Joxepa Antonik bertsoak irakurri, malmetitu, erantzuteko bertsoak idatzi eta Enrike Elizetxearen etxeko postontzian utzi omen zitkion, hain zuzen, “Harrapa ezak hori!” esanda. Kon-

tuan izan behar dugu Enrike Elizetxea (1873-1947), Joxepa Antoni baino gazteagoa izanagatik, bazela nor Errenterian. Euskal letretan, Jose Manterola liberalak zuzentzen zuen *Euskal Erria* aldizkarian oso gaztetatik argitaratuak zituen hainbat lan, sariketetan ere parte hartzen zuen... gero eta izen handiagoa hartzen joan zen: Viteri kalean Elizetxea ostatua zuten (egun Xenpelar eta Viteri kaleak banatzen dituen kantoian), 1906-1914 eta 1916-1920 urteetan Koalizio liberalako zinegotzia izan zen, liberala zen, errepublikazalea...

Joxepa Antonik, esan bezala, ez zuen erantzuna astekarira bidali; Elizetxeak bidali zuen, Joxepa Antoniren bertsoen aurretik bere azalpena ("Azaldea") duela. 1902ko apirilaren 13an argitaratu zuten. Hor dio, besteak beste, errua *Ibaizabalena* dela gai hori proposatzeagatik, eta ederki damutu zaiola saria irabazi izana, Errenteriako neskazarrek muzin egiten diote eta. Hona "Azaldearen" bukaera, Xenpelarren bertsoen sarrerabide:

*Lengoan, esan zidanean nere lagun batek nere bertsoan ordan-
ñak jartzea gogoratu zitzaiola, sartu zitzaidan beldur bat!... Eta
esan nuen nere artean: "Izan bedi Jaungoikoak nai duena".*

*Egunero egon naiz zalantzan noiz edo noiz artuko nuen karta
ikaragarri okerreriz betetakoren bat, eta asteazken-eguerdian,
lantegitik etxeratu nintzanean eta eman zidatenean karta bat,
Errenterian egiña, kartestalki edo sobreak dionez,... "Emen
dek, emen dek!" esan nuen nere artean; baña denbora berean
otzikara bat igaro zan nere gorputzean eta agitz arrituta gelditu
nintzan. Neregandu ondorean, zirt edo zart egiñ bear, bada,
eta ez ikara gutxirekin, baña nolazpait idiki nuen, eta zer uste
dezute topatu nuela? Letra polit batekin izkribatuak, itzik kendu
eta iratxiki gabe, dauden bezela, oraiñ irakurriko dituzuten
bertso abek.*

Beldurra ematen zion Enrike Elizetxeari, nonbait, Joxepa Antonik zer idatziko. Puntuz puntu erantzuten die hamar bertsoan Joxepa Antonik Elizetxeak neskazarrei bizkarreratuko okerre. Horietako batzuk ekarriko ditugu Joxepa Antoniren argudioei erreparatzeko eta garai hartako gizarteak neskazaharrak nola ikusten zituen erakusteko.

Joxepa Antonik neskazahar egotearen alde egiten duela dirudi; bestela esan, nondik atera du Elizetxeak neskazaharrak neskazahar izate hutsagatik ernegatzen bizi direla? Ez Joxepa Antoni ez lagunak bizi dira horrela. Gainera, Bizenta aipatzen dio Joxepa Antonik. Bizenta Alzelai izango da, Fabrika handian Joxepa Antonirekin lan egin zuena, Joxepa Antoniren laguna eta, batez ere, Elizetxeatarren ostatuan urte luzeetan lanean aritu zena; Elizetxeatarren etxekoa ia-ia.



Eserita, ezker-eskuin, Maria Aranburu (Elizetxearen emaztea), Enrike Elizetxea eta Bizenta Alzelai. Zutik, ezker-eskuin, umezaina, logelen arduraduna eta ostatuko bi sukaldariak. (Argazkia: Maribel Martínez Elizetxea). Iñigo Imaz, *Bilduma* 20 (2007).

*Gu ernegatzen bizi gerala
senargairikanen ez ta,
nere lagunen artean beintzat
orrelakorikan ez da;
neri sinisten ez badirazu
etxian asi galdezka,
nik baña obeto emango dizu
Bizentak errespuesta.*

Bidenabar esan dezagun hurrengo honetan ere, Joxepa Antoniren erlijiozaletasuna nabarmentzen dela:

*Etzait gustatzen relijiyoko
gauzak autan ibiltzia,
errespetoko gauza guztiyak
serio tratatutzia;
arriturikan gelditu gera
zu orrela mintzatzia,
esperatzen det oinbesterekin,
Enrike, konprenditzia.*

Eta azkenekoan erakusten du Joxepa Antonik bere burua indartsu ikusten duela berea ez ezik kideena ere defenditzeko. Beste era batera esanda, neskazarren anparatzaile eta bozeramaile bihurtu du Elizetxearen ziriak.

*Edadetxoko nere lagunak
nai nituben anparatu,
oriyei gusto emateagatik
dizut ordañak bueltatu,
nai badituzu Ibaizabal-en
oiek ere kopiatu,
eta saririk ematen badu
gutaz ere akordatu.*

Joxepa Antoniren bertsoen ondoan Elizetxeak hitz batzuk erantsi zituen eztabaida erabat kitatzeko. Hitz horietako batzuk ekarriko ditugu lehen ahotan hartu dugun XX. mendeko gizarteak neskazarrenak nola ikusten zituen gogoetaria plazaratzen dute eta. Lehenik eta behin, dotrinak barkatzeko esaten duela eta horixe eskatzen die, baina, “baldin egiazko kristauak bazarete” eta, bigarren, berriz ere neskazarren bizitza “tristetza” dauka (letra lodia guk paratua da). Alegia, bai, baina...:

*Umiltasun guziarekin eskatzen dizutet, bada, baldin egiazko
kristauak bazarete, barkatu zazkidazutela nere gaizki esan edo
ofensa guziak, eta orrekin lan errukitsu edo miseriakordiazko bat
besterik eztezute egingo.*

*Nik nere aldetik agintzen dizutet, ordañetan, eskatuko diodala
Jaungoikoari eman dezaiola nezkazar guziari senargai on bana,
edo aberastasunak edo berak nai dituzten zori on denak, arkitzen
diran bizitza ... -esango ote det?- triste orretan doatsuak izan ditezen
beti-betiko.*

*Utzi, bada, nigan daukazuten etsaitasuna, eta oraiñ artean
bezela jarraiki dezagun pake onean ballera negarrezko onetan, bizi
geran bitartean. Agur, bada ... eta urren arte.*

Honaino jasoak erakusten du, azkenik jaso ditugun Elizetxearen hitzak gorabehera, bi errenteriarren arteko lehia aski harmoniatsua izan zela, aski ongi bideratu zutela. Elizetxeak zirikatatu eta Joxepa Antonik ziztada jaso eta maila berean erantzun zuela. Ez zen, baina, hemen eta modu honetan bukatu neskazarren gaia *Ibaizabal* astekarian.

Elizetxeak astekarira bidalitako testuek beste norbaiten oinoharrak dituzte. “Kajista” omen da. Kontuan izan behar dugu nola moldatzen zituzten moldiztegietan moldeak letraz letra, hitzez hitz, hutsunez hutsune, gero tintaren laguntzaz paperean inprimatu ahal izateko. Tipoak eta paratzen zituenak inork baino hobe-kiago irakurri behar zituen idazleek bidalitako testuak, moldeetan, kajetan berregin behar zituen eta.

Hona Elizetxaren hitzak:

Baña zer balio du onek, baldin bera iritxitzeagatik galdu badet sekulako neskazar denen edo beñepin geienen adiskidetasuna eta berak zidaten naitasun eta estimazioa? (1)

Eta hona kajistaren oharra.

(1) Eztezu, jauna, gauz aundirik galdu. (Kajista batek).

Bigarren oharra Joxepa Antoniren bertsoari egiten dio:

*Zure amigo batek esan du
neskazar onik ez dela,
orren ederki gure gañean
egin dezute pastela.
Pruebarik asko berak baditu
ori egiya ez dela,
gure moduko persona ez da,
esango nuke bestela. (2)*

Oin-oharra:

(2) Nik esango det, bada. Marka oiekin ez liteke izan apaizen bat besterik. Zuek nai dezutena esango dezute zeren buruak edertzeagatik... bañan ni apaizan alde ontan; eta ez aserretu orrengatik. (id.).

Hurrengo oharra Elizetxearen bukaerako testuan dago. Ez dirudi kajistak egina denik:

Ederki daude, Joxepa Antoni, eta milla esker Ibaizabal-en ize-nean. Progatu dezu bertso abekin aurrekoan ondorengoa zerala. (4)

Oharra:

(4) Leen ere esan degunez, Xenpelar bertsolariaren illoba zala, alegia.

Eta azkena, hau ere, Elizetxearen azken testuari doakiona. Lehen jaso ditugu hitzok:

Nik nere aldetik agintzen dizutet, ordañetan, eskatuko diodala Jaungoikoari eman dezaiola nezkazar guziari senargai on bana, edo aberastasunak (5) edo berak nai dituzten zori on denak

Kajistak, atzera era:

(5) Edo urteak bizkarretik kentzeko balsamo bat. (Leengo kajistak).

Esan dezagun ez dugula ulertzen zergatik tartekatu behar zituen bere iritziak kajistak. Begiratu ere egin dugu Ibaizabaleko ale horretan eta dauden oin-ohar bakarrak metalinguistikoak dira, alegia, irakurleari hitzen esanahia argitzeko

asmoz eginak; ez ditu kajista horrek beste inon testugilearen edukiak auzitan jartzen. Konparaziorako “Mutl Zaharrak” gaiaren gaineko bertso irabaztunen alea (1902.06.08) ere begiratu dugu –hori ere Elizetxeak irabazi bide zuen– eta ohar garria da “kajistak” inon oharrik ez duela egin. Ezin, bada, ondorioztatu gai guztietan eta beti modu berean jokatzeko zutenik.

Eta, hala ere (horrexegatik?), Joxepa Antonik erantzun kajistari. Oraingoan, aurrekoan ez bezala, ez zuen Elizetxearen bitartekaritza izan *Ibaizabala* lau bertsoko erantzuna bidaltzeko. Ez zuen lan samurra izango, seguruenik. Ikus dezagun, berriz ere, kajistari kargu hartzen diola uste duelako neskazar guztiak gaizki bizi direla. 1902ko ekainaren 15ean argitaratu ziren bertsoak:

“Kajista bateri”

1/ Neskazarraren adiskiden bat
Bilbo aldean badegu,
kajista dela Ibaizabal-en
berak garbiro esan du;
nai dizut bada errespuesta
gaur zuri ere bialdu,
zuk Enrikeri esan diozu:
“Ez du, jauna, ezer galdu”.

3/ Sentitzen det gaur ez daukatela
ezagutzeko onorea,
kajista ori degun ezker
orrelako adiskidea;
eztaduzkagu ukatutzeko
urteak eta umorea,
bañan bai zenbait andre gizona
eta gizonak andrea.

2/ Eliza santak sakramentuak
jarriak daukazki zazpi,
bost prezisuak dirade baña
bi libre utziak dauzki;
dudarik gabe kajista onek
oiek aztuak daukazki,
eta uste du neskazar denak
bizi geradela gaizki

4/ Emen ez degu balsamorikan
neskazarrak gaztetzeko,
bañan bai enplastera ederrak
osasuna ekartzeko;
Bilbo aldean baldin badago
kajitxoren bat saltzeko,
erosi ezazu ta ondo gorde
zeori balsamatzeko.

Joxepa Antoni

Hori bukaera! Errepara diezaiozun baltsamo eta enplasteroaren arteko jokoari, *balsamatzeko kaja* aipatzeari (beste gisa bateko kajistarekin ari da).

Kajistaren erantzunaren muina da pentsatzea emakume guztien bizitzako helburua dela ezkontzea eta kezka nagusia dutela (adibide gisa koinata aipatzen du) diren baino gazteagoen itxura egin nahi izatea adina ezkutatzeko. Eta, ildo horretatik, baltsamoa hizpidean hartuta, honela bukatzen du:

denda txikitxo baten buruan itz auek irakurriko dituzute:

«Aquí se rejuvenece.»

Balsamoa saltzen ote da an ere? Ala bizargintza edo barbería ote da denda ura? Zoazte ta ikusi ezazute.

*Errenteriko Joxepa Anttoni
Santa Ritaren laguna,
Bilbo aldeko kajista oni agindu nai diozuna.*

Kajista batek.

Joxepa Antonik hurrengo bi bertsoekin eman zion azken erantzuna eta horrelaxe bukatu neskazarren

“Kajistari”

*1/ Oso ederki esan diguzu
koñataren istoria,
neretzat ere somatu dezu
damaren izen berria.
Zenbait algara eragin duen
periodiko berriak,
Ibaizabal-ek ez du kalterik
guri bertsoak jarria.*

*2/ Gure errian beneratzen da
txit imajiña polita,
orain bi urte deklaratu
Casia-ko Santa Rita;
ori laguntzat eman dirazu,
zerbait zaude igarrita;
nere gustoko konpañia da,
eskerrik asko, kajista.*

Uste dugu Joxepa Antoniren izaeraren argazkia egiteko tresna egokia dela eztabaida. Alegia, Joxepa Antonik ezagutzen zuen Enrike Elizetxearekin ez ezik, ezagutzen ez zuen –nor den ez dakigun, baina hizkeragatik giputza izango zengizaseme kajistari aurre eta planto egiteko sasoia eta adorea izan zuen. Alde batera, harrigarri samarra ere bada bizitzaren beste alderdi askotan plaza handirik izango ez zuen emakume honen jarrera adoretsua. Bizitzaren gogorrak erakutsiko zion.

Beste alderdi batetik ere badu interesik eztabaidak: Joxepa Antoni bezalako emakume ez oso jantziak Bilboko *Ibaizabal* euskara hutsez argitaratzen zen aldizkaria irakurtzen zuen. Irakurri eta euskaraz. Gero (1941-1942 aldean) “*Markolako patatak*” bertsoan ere horixe aitortzen du. Baina irakurri bakkarik ez zuen egiten, erosten zuen, gainera. Eta dirua sobran ez zuen izango, bada!

*Nere denboran izandu diyo
afiziyua kantari,
iñon bertsorik azaltzen bazen
eosi ta irakurri;*

Gaztelaniaz hartuko zuen, bada, hartu zuen hezkuntza pixarra eta etxeko giroa ere ez zuen oso horretara emana. Berriz ere emakume honen maila bateko kezka intelektualaren ispilua da, horrela esatea badago.

Irakurzaletasuna bultzatzeko ere balio izan zuen eztabaidak: iraun zuen aldian Errenterian *Ibaizabal* inoiz ez bezala saltzen omen zen. Honela dio Enrike Elizetxearen seme Manuelek Antonio Zavalari egindako gutunean:

“ ... Joshepa Anthoni (Xenpelar), a la que yo conocí, era muy querida por nuestro padre (G.B), y alguna vez se enfadaron porque mi padre quiso enfadar a las neskazarras de Rentería.

Alguna que otra vez me repitió mi padre que, durante la polémica, el Ibaizabal se vendía en el pueblo como si fuera el honor. Hasta se peleaban con el que lo vendía.” (Zavala 1993: 568).

Eztabaidan amore emanzealea ez eta gainera umorezalea ere bazen Joxepa Antoni, “Neskazarrak” bertsoetan ikusten denez. Beste bertso batzuetan ere baditu umore ukituak: “*Rikardo Arakiñari*” eginiko bertsoetan, esate baterako. Umorezale ez ezik, kantu eta bertsozalea zela ere badakigu, “*Markolako patatak*” (1941-1942 urte inguruko) bertsoetan aitortzen duenez:

*Nere denboran izandu diyot
afiziyua kantari,
iñon bertsorik azaltzen bazen
eosi ta irakurri;
umore ona lagun artean,
ori gustatu zait neri;
oraintxen iya eskapatu zait,
alare bertsua jarri;
eztaikit nola erori zaizkan
gure Bagues jaunari,
barkaziyua eskatzen diyot
itz egin badet geiegi.*

Ausarta, jakin-zalea, ama bezala, eta karlista eta erlijiozale eta elizkoia, aitaren moldera, eta Florentina bizikidea bezala. Ez dakigu 1936ko gerratean Joxepa Antonik alderdirik hartu zuen, Errenteriako karlista askok bezala, armaz altxatu zirenen aldean kokatu zuen bere burua. Horren gainera bertsorik ez du utzi, edo ez zaigu iritsi.

Joxepa Antoniren bizitzan elizak sekulako lekua zuen. Monika Galarragarekin batean, *Propagación de la Fe* izeneko elizaren erakunde bati mixioetarako dirua ematen zion astean-astean. Eta hala pentsarazten digute bai ezagutu zuten lekukoek, bai bertsoak egiteko erabili zituen gaiek (erlijiozko askotxo: “*Tota pulchra...*”, “*Ama Birgiñari*”, “*Mariaren alaba batek Jaungoikuaren eta bere amari*”...) bai bertsoetan adierazten duten ideiek ere. Milagros Gazteluk gogoan gordea du Joxepa Antoni ikusten zuela beti etxetik, Santsoenea kaletik, elizara eta elizatik etxerako bidean.

Antonio Zavalaren ondarean (Koldo Mitxelena liburutegian) aurkitu dugu orain arte argitaratu ez den garai bateko ohitura eta bizimoldearen argazki aski argigarria. Errenteriako emakume taldea prozesioren batera joateko prestatua dago, Donostiako geltokian. Hauxe da, guk dakigula, argitaratu den Florentina Perezen irudi bakarra.



Nabarmenduak Florentina Perez ezkerrean eta eskuinean Joxepa Antoni Aranberri, errenteriar gehiagoren artean (Rufina Loinaz, Gertrudis Arozena, Eusebia ikatz-saltzailea, Dolores...). Milagros Gazteluk ezagutuak.

Euskarak ere bere lekua du. Bere burua euskalduntzat dauka eta euskararen alde mintzatzen da behin baino gehiagotan. Hona adibide batzuk:

“Kastigu tristia” (1902)
(Ibaizabal, 1902.11.23)

*Zu gure alde izan zaitezen
guk arrazoi bat daukagu:
gure izkuntzan maldiziu au
ezta oraindik azaldu.
Kastillanuan itz gaiztu ori,
ai!, al baliteke galdu,
arrazoiakin Ibaizabal-ek
nai du euskera zabaldu.*

“Ama Birgiñari” (1902)

*Beste gauza bat esan bear det
asko gustatu zaiguna,
alde danetan jakin dezaten
euskera maite degula;
euskeraz izan dira sermoiak
ta bederatzi urrena,
pozturik utzi dizkigutenak
“bizitza, biotz eta anima”.*

*Ikusten dezu, Ama maitia,
zenbat peligrotan gauden,
etsai gogorrez ingurutuak
euskera ta fediaren;
Judit fuertia zu izan zaite
beti gure erriaren,
“errukiz begiratu zaiguzu,
galtzera ez utzi, arren”.*

Jabier, Justa eta Joxepa Antoni bizi diren etxe eta solairu beretan, 1905ean, bizi dira baita ere lehen aipatu ditugun Dolores Otegi eta Mikela Perez ama-alabekin beste hiru emakume, lehen aipatu ez ditugunak: Luisa Goenaga Pikabea oiartzuarra (1865eko apirilaren 25ean bataiatua), Francisco Pedro Perez Otegirekin 1890eko urtarrilaren 11n Erreenterian ezkondua, baina 1905ean alarguna dena, eta honen bi alaba: Matilde Perez Goenaga (1894ko martxoaren 17an bataiatua), jostuna, errenteriarra, eta ahizpa Florentina Perez Goenaga (1902ko martxoaren 14an jaioa), Berastegin jaioa.

Famili ontan, amona Dolores, alaba Mikela eta bi illoba, Matilde eta Florentina –edo, esaten ziotenez, Pontiña– bizi ziran. Florentina au da idazlan ontarako argibiderik geien-geienak eman dizkiguna. (Zavala 1993: 552).

Zavalak ez du Luisa aipatzen eta horko hitzek –nahiz Zavalak berariaz esaten ez duen eta *iloba* hitzak euskaraz bi balio dituen (izebaren ilobak eta amonarenak, ilobak edo bilobak)– pentsaraz dezakete Mikelaren alabak direla Matilde eta Florentina, baina erroldek erakusten dute ilobak direla, Luisaren alabak. Bestetik, berriz, Florentina hori da (seguruenik) Antonio Zavalak lan guztietan Florentina Perez Salaberria moduan izendatzen duena. Ez dugu inon bigarren abizena Salaberria duen Florentina Perezik ikusi, Joxepa Antoniren auzoa lehenbizi eta gero harekin bizi dena, erroldetan behintzat, beti Goenaga da.

Era berean, erabat seguru ezin jakin dezakegu Florentinaren aita, Luisa Goenagaren senarra (Francisco Pedro Perez Otegi), Mikelaren anaia zen, baina baiezkoan gaude. Abizen berak dituzte, eta adinagatik ere senideak izan daitezke. Gainera, bai hor goian, bai gero jasoko ditugun bertso batzuetan Joxepa Antonik izeba-ilobez hitz egiten du Mikelaz eta Matilde eta Florentinaz aritzean.

PADRON DE HABITANTES									
NÚMERO	NOMBRES Y APELLIDOS	FECHA DE NACIMIENTO			NACIONALIDAD		ESTADO CIVIL	OCCUPACION	OBSERVACIONES
		Año	Mes	Día	Padre	Madre			
1905	Jabier Justa	1905	1	1	Justa	Justa	soltero		
1905	Justa Justa	1905	1	1	Justa	Justa	soltero		
1905	Joxepa Antoni	1905	1	1	Antoni	Antoni	soltero		
1905	Dolores Otegi	1905	1	1	Otegi	Otegi	soltero		
1905	Mikela Perez	1905	1	1	Perez	Perez	soltero		
1905	Luisa Goenaga	1905	1	1	Goenaga	Goenaga	soltero		
1905	Francisco Pedro Perez	1905	1	1	Perez	Perez	soltero		
1905	Matilde Perez	1905	1	1	Perez	Perez	soltero		
1905	Florentina Perez	1905	1	1	Perez	Perez	soltero		

1905eko errolda.

1905eko erroldako datuen arabera, Jabier oraindik ere “caminero” da (75 urte ditu!), Justa emaztearen jaioteguna zehaztu dute, 1835eko maiatzaren 5a, eta Joxepa Antoniri “jornalera” jarri diote, ez ehulea. Ez dakigu, Monika Galarra-gak esaten duen bezala, irazkitzen eta ez ehuten aritzen zelako egin zuten hitzen bereizkuntza hori edo, besterik gabe lan motak ez bereizteko erabiliko zuten *jornalera*. Irakurtzen eta idazten ba omen daki. Bost urte lehenago jarria zuten ez zekiela idazten. Joxepa Antonik 40 urte ditu.

Eta bost urte geroago erroldan horko datu berak errepikatzen dira bi izan ezik: Joxepa Antoniren lanbidea ez da ez ehulea ez jornalaria, “del sexo” baizik (harri-garri samarra, Fabrika handian lanean jarraituko zuen eta). Antza denez, Luisa Goenaga, Matilde eta Florentinaren ama hila da; zerrendan ez dago haren izena behintzat.

Nonikaki: Bere sagan... lagun batakun bilitan van Josepa
Antoni ara, bere lagun batakun mala sakungala ,struan saniderik,
struan inato-sanbak...

Ameriketara juan isandu ozen strukturelurren alabak,
Ameriketara juan struk, bi alabak ozen situak, bi goiako
asterreanik es alabak, Ameriketara juan, Euzen ozen alabak.
Euzen ozen.

Tu ari bilitan nen lagon batakia, bi lagonak, biak
mekasurrah, eta bostiak baitan ilalek eta ilalek aklam,
ilalek ure bial du ari bostia furian, eta larden daga, an
Turke, ilalek aklam, eta bere beti or biala isenda du aklam.
Furikan baitan an ta gara erretira

Sika Jangga Antoni anak binti Ima ingin sun lamaya fahetkna?

Henrikus: laorun est Fabrikus suntiyen, de lienses, tejjies.

504 Jan. 1986

Monika: Julia san, eta san art kontumista,.....erantien
san karga eio eia,oso maitia san,lik beti kontumista esagatu
izanda san Josepa Antoni.

...lanian irostekian, irosten, ...eullen ex, irostekian,
eta ure juan nen eta elture batere txivvihan billa

side triangle per day

Konklus: tširrikak dira karreta sundiak,aria betetzen di
runak

nik: sein? Kumpelar Janyea Antest

monikak: hai, Jaesep Antoni, Ura juan sen aien billa te aie
gure eanten zishan bete langillid bete situetan arie, Ura
billa erunte juan anien e, utak eranen te betiak skurri te b
betiak eranen ...eie, Uie eranen eene aien on erane, eraneak
sultosen nri sen betiak...

© 2004 Blackwell Publishing Ltd

Nonahak: klare e-and diut lene... Iruskitonf Iruskiton
da ariyak evertan dire ta ariyak mado jertan gere telatan
ar-Binak, Nulin da berrin tela eptem, Iruskiton da beste lanta-
gi bat, masekitten, * sirikitin, errepagan ta sik denak baknitak
beritagan ariu siran, Ta Iruskiton si siranak.

Gregorio con don Enrique Billé Juan conde..

Tecumseh, Mich.

Bersak: beritak: bota bertak hat artikulasi, bota
bertak hat artik.

Miller, D. 1991.

monikakibetiki ure ala alturan, Neta-bertee bat, lampelar,
batai nala beteen siuma artik aaro bat eda besta... Lampelar
Neta bertee bati apak wotuna aniki.

Terraza anetara
naisenian iya,
bertous botatsake
Nannalak diya;
Fanderitarrarentat
nik es det haliya,
nere tokira nua
verira verira.

Ta koutiak beta lalu bersala,berak atura,Memelam partem;

Funderitarra naita zi
ez diont ukatzen,
hutan korta zuzerre
bertsuek betatsen; (kantatsen)
dunutu salt auzia
Txepelar tentatsen,
aga emen Afahitarte
uta al bot betatsen.

Area under the curve...

with carbon black (Kronach).

monakik: biyak xempellarvank dire, Eke arena estakit unde,
gore berak bota sile atocora xeni, Akahitarteri; karwetik estakit
ser its duna

malaga miki nik oron
haina haneukake.

Kongelarrek, eta gero atzera berak atzera:
 Ahabitarrek diyo
 ez duela beldak,
 eta ez amateko
 urtelako lotak.

Open-11 counts at 1000

www.1ay.hayran.1ayrak.org.tr...Tayraklarin bota sitesine

Monikak: segiran lempelarrak bete zituen. Bakorrik falo
sekit bi puntu ta bi puntu (Rabitartanak. Osoak garikiz Ma-
nielarak.

1910eko errolda.

Joxepa Antoni jostundegian. Azken urteak

1915eko erroldaren arabera, Joxepa Antoni etxez aldatu da: orain Santsoenea kaleko 25.ean bizi da Mikela Perez Otegi jostunarekin eta bi iloba, Matilde eta Florentinarekin. Pentsatzekoa da Jabier (eta Justa) hilak direla orduko. Ez dugu haien arrastorik aurkitu. Joxepa Antonik baditu 50 urte. Hemen ere Joxepa Antoniri lanbidea etxekoandre paratu diote.

Aita mundu ontatik joan eta bakarrik gelditu zanean, Joxepa Antoni auzoko familiarekin asi zen bizi izaten. Leen ere etxekoak balira bezela ziran, baiña arrezkeroztik aiekin erabat jarri zan. (Zavala 1993: 551).

Euskal Herriko Iparraldean suntsitu eta (gaztez) hustu zuen gertakari lazgarria bizi dute urte hauetan: 1914-1918ko “Gerrate handia”. Joxepa Antonik 1917an, gerratea amaitu aurretik, bertsoaldi luzea egin zuen. Zati bat edo beste ekarriko dugu garai hartako ideologietako bat ispiatzeko aukera ematen du eta.

Alemania eta Ingalaterra elkarren kontra paratzen ditu Joxepa Antonik. Ez dugu atzendu behar, baina, Ingalaterrarekin batean Frantzia ere borrokatu zela; alegia, euskaldun asko Frantziaren alde borrokatu eta hil zirela. Iparraldeko herri eta herrixka askotan gordetzen dute gerrate hilgarri hartan hildako euskaldunen oroigarria.

The image shows a historical document titled "PADRON DE HABITANTES" (Census of Residents) from 1915. It is a handwritten table with multiple columns for names, addresses, and other details. The document is aged and has some yellowing and staining.

1915eko errolda.

Lehenik eta behin, osaba *Xenpelar* bezalaxe, gerrateen kontra mintzatzen da Joxepa Antoni eta borroka latza bukatzeko laguntza eskatzen die Jesus eta Maria amari. Hona “Gerra europeari” jarritakoen hasiera-bukaerak:

*Ager zaitez, zeruko
uztargi ederra,
pakia ematera;
akabatu gerra.*

*5/ Ezta besterik falta,
lesus, zure naia,
geldituko dirade
kañoi ta metralla;
emaiozu Amari
Dabiden aballa,
akabatu dezala
munduko batalla*

*6/ Gerrau asi zanian,
ez genduen uste
luzatuko zuela
gauzak onenbeste;
ez ogei ta bi egun,
juan dira iru urte;
Jesus eta Maria,
urrikal zaitezte.*

Joxepa Antonik Ingalaterraren kontra eta Alemaniaren alde egiten du, garbi. Espainiak gerrate horretan zuzenean parte hartu ez bazuen ere, oso gertu bizi izan zuen, eta gizartea banatuta zegoen aliatuzaleen eta gemaniar-zaleen artean. Oro har, pentsamendu kontserbadorearen eusleek, Kaiserrak ordezkatzzen zuen “(betiko) ordenaren” aldekoek (karlistak, militarrek, kleroaren zati handi batek...), Alemaniaren alde egin zuten. Joxepa Antoni hor kokatzekoa da. Hona Joxepa Antoniren pentsamenduaren adibidea bertso batzuetan adierazia:

“Inglaterrari”¹³

1/ Etzera uste bezin altsua;
ez da zuria, ez, itxasua;
arriya tira, gorde besua,
orain artian ibilli zera
orgullosua.

2/ Inglesa zegon gañez egiña,
itxasuetan zala erregiña,
etzela inor orrentzat diña;
urpeku orrek egiten dizu
zaunga samiña.

3/ Balientiak berak lenbizi
irten biar du ill edo bizi;
ori zuregan ez da ikusi;
bestiak lanak eginta nai du
berak nagusi.

“Alemaniari”

1/ Alemaniko gizonak abill,
oraindik danak ez baitira ill;
bonbero onak baditu berdin;
su artzen badu itzaliko du
oraindik Berlin.

4/ Enemigua eskui ta ezker,
danon erdiyan or dabill Kaiser;
ikusiko da gauza ori laister:
zein gelditzen den bat nagusi ta bestia
maizter.

7/ Gerra batian oinbeste kalte,
aurreko zarrak ezetz diyote;
sentimentuan artzen det parte,
pakia nere partetikan
deseo nuke.

Joxepa Antoniren bizitzan beste aldaketa bat dago. 1921eko erroldak jasotzen duenez, Santsoenea kaleko etxe berean bizi dira jostuna, Mikela, Florentina eta Joxepa Antoni. Matilde falta da; moja joan zen. Zavalak honela dio:

Joxepa Antoni Aranberri bizi zan etxeko alaba bat, Matilde, moja joan zan lruñeko komenturen batera. Egun batez, bertso auek bialdu zizkion arek oni. Eskutitz bat dirala esan genezake. (Zavala 1993: 579).



Santsoenea kaleko etxea. 2012.

13. [M0].

PADRÓN DE HABITANTES										Calle Sanabetsua. Peda. 4.ª	
N.º	APELLIDOS Y NOMBRES	EDAD			NATURALEZA		Sexo	Profesión	Situación	Luz	OBSERVACIONES
		En	Me	Años	Padre	Madre					
1	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
2	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
3	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
4	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
5	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
6	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
7	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
8	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
9	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
10	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
11	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
12	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
13	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
14	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
15	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
16	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
17	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
18	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
19	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
20	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
21	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
22	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
23	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
24	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
25	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
26	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
27	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
28	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
29	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
30	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
31	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
32	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
33	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
34	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
35	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
36	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
37	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
38	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
39	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
40	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
41	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
42	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
43	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
44	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
45	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
46	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
47	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
48	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
49	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
50	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
51	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
52	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
53	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
54	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
55	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
56	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
57	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
58	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
59	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
60	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
61	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
62	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
63	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
64	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
65	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
66	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
67	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
68	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
69	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
70	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
71	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
72	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
73	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
74	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
75	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
76	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
77	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
78	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
79	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
80	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
81	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
82	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
83	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
84	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
85	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
86	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
87	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
88	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
89	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
90	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
91	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
92	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
93	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
94	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
95	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
96	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
97	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
98	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
99	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...
100	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...

1921eko errolda.

Joxepa Antonik gutun moduko bertsootan etxeko berri kontatzen dio: izeba Mikela, jostuna, “katarro eta kiyua dabil”...

*Pentsamentua egiñak giñan
udan zu bisitatzeko,
bañan ez gaude bi neskazarrak
etxetik ateratzeko;
izeba-illobak esan dirate
zuri bertsuak jartzeko;
umore ona dauka oraindik,
ez du asmorik iltzeko.*

*Izeba dabill aspalditxuan
katarro eta kiyua,
jaikitzen bada isten dizkigu
atiak eta leiua;
iya ituan ementxen gaude,
orra zer alibiyua,
nola nai dezu idukitzia
bertsuetako gogua?*

Eta hiru neskazahar bizi direla etxean esaten dio, ez oso pozik, antza; tristeago, Matilde joan zaielako.

*Gu emen gaude iru neskazar,
iruak ajiatuak,
nunbait onela komeniko zen
ala nairik Jaungoikuak;
orain kantari ari naiz bañan
aldian dauzkat malkuak,
suerte txarra etzuen egiñ
gugandik eskapatua*

1921etik aurrera, beraz, Mikela, Florentina eta Joxepa Antoni elkarrekin bizi dira, Santsoenea kaleko jostundegia gune dutela. Jostundegia leku interesgarria da emakumeak elkartzeko lekua delako. Han aritzen omen ziren ikastera joaten ziren neska gazteak –Juanito Zabaleta bertsolariaren emaztea izango zen Monika Galarraga Zavalaren berri-emailea ere bai– Mikela, maistra, buru eta zirikatzaile zutela hizketan eta kantatzen Xenpelarren, Txirritaren, Zabaletatarren eta inguruko beste makina bat bertsolarien bertsoak. 1934an hil zen Mikela, eta Florentina iloba eta Joxepa Antoni bakarrik utzi zituen.

Bidenabar esan dezagun Florentina ez zela jostundegiko lan hutsaz biziko. Milagros Gaztelu oroitzen da Errepublikaren garaian (1931-1936) irakasle-agiririk ez zuten mojej ez zietela eskola ematen uzten. Erreterian “beheko mojek” (Gurutzearen alabek) San Jose ikastetxea zuten Santa Klara zubiaren ondoan (orain zaharren egoitza dagoen lekuan) eta erreteriar asko joaten ziren hara ikastera. Florentina Perez aritu zen eskolako neskei eskulanetan (josten...) erakusten.

Adierazgarria da Joxepa Antonik jostundegia aukeratu izana bere bizitzan egin zituen erretratu bakarretarako. Izan ere, beste familiarik ez eta, gainera, garai hartan zein egoeratan egingo zituzten erretratuak neskazaharrek? Lehen esan dugun bezala, argazki horiei esker harena ez ezik, Monika Galarraga Gaztelumendi gaztearen (Joxepa Antoni baino 30 urte gazteagoaren) eta jostundegiko nesken irudia ere iritsi zaigu.

Erretratuarekin batera bertsook ere bidali zituen jostundegira. Berriz ere ikus daiteke umorea tartean dela, 1934 baino lehenagoko bertsoak izango dira, Mikela eta “dizipulak” ahotan ditu eta:

*Jeneralian erretratuan
ikusten da familiya,
jostundegi edo lantegietan
berriz jende gazteriya;
alde ortatik ez naiz ibilli,
esango diet egiya:
pensatu nuen neskazar bati
egitia konpañiya.*

*Astiertian goiz bazkaldu eta
etxetikan irten nitzan,
nere goguan zer nebilkiyen
ez nizuten bada esan;
orra bada gaur bi kopetillun
Konstituziyoko plazan,
Mikelak bere diszipulakin
naiko farra egin dezan.*

Joxepa Antonik bat-batean bista galdu zuen eta erdi itsututa –jendearen errainua bai, baina garbi ikusten ez zuela– bizi izan zen azken 20 urteetan, 1923tik 1943ra, alegia.

*zure parentel onragarriya
ez nuke nai desonratu,
zarra bainago, erdi itxua,
zuk orrekin entenditu*

Hala ere, lanera joaten segitu omen zuen urte mordo batean, nagusiak hala nahi izaki, Joxepa Antoni *kontramaistra* baitzen. Baina gero Joxepa Antonik berak eskatu zuen erretiroa. “*Markolako patatak*” bertsoan dioena hitzez hitz hartzen badugu eta 1877 aldera lanean hasi zela gogoan badugu, pentsa daiteke 1937 arte edo lan egin zuela Fabrika handian:

*Irurogei bat urte aldian,
oso ez badira ere,
gure lantegi aundi orretan
lana egiñak gerade,
uste dedanez bi gizonekin
bost bat emakume gaude;
Bagues jauna, ez asarretu
bertsuak gaizki badaude.*

Ez dakigu 1910etik aurrerako erroldetan zergatik jartzen duen Joxepa Antoni etxekoandrea dela. Lanbideetako bat hori zuen, bai, baina, dirudienez, ez bakarra, etxetik kanpo ere lan egiten baitzuen.

Bistarik ezean, besteren laguntza behar izaten zuen bai bertsoak idazteko, Mikela jostunak askotan egiten zion idazkari lana, bai bizitzako makina bat beharretarako. Mikelak ere bazuen nahiko lan, ordea, gortu baitzen. Gorra itsuari laguntzen.

1940. urteko erroldan jasotzen du Santsoenea kaleko 25.ean elkarrekin bizi direla Florentina Perez Goenaga (burua), “labores”, etxekoandrea, alegia, 75 urte beteak dituen Joxepa Antoni, erretiratu orduko (apopilo, “huésped” omen dago etxe horretan) eta 1917an Markina-Etxebarrian jaiotako Jose Leon Salaberria Arizmendiarieta “empleado ayuntamiento” (hau ere apopilo). Milagros Gaztelu oroitzen da Jose Leon etxe horretan bizi izan zela, baina ez noiz arte bizi izan zen Joxepa Antoni eta Florentinarekin. Nolanahi dela ere, harrigarria da Florentinaren Goenaga-Salaberria deituranahastea, Florentina bera izan baitzen Antonio Zavalaren berri-emaila.

1940ko errolda.

Hantxe bizi izan zen Joxepa Antoni, ia itsututa, minbiziak 1943ko abenduaren 29an eraman zuen arte. Azken urtea ohean pasatu zuen ondoezik, baina, bertsoak egiteari ez zion utzi.

Moja zihoan Julianari honelakoxe agurtzeko gutun-bertsoa egin zion, ohean zela:

*Adios Juliana,
adios betiko,
Xenpelarrek etzaitu
geiago ikusiko;
bañan zu aztutzia
ori ez du naiko,
amak eskutitztxo bat
dizu bialiko:
Xenpelar il dela ta
enkomendatzeko.*

Bestalde, Joxepa Antoniren zaletasun, ezaugarriarik inork esanda apenas iritsi zaigun: Zavalaren ohiko berri-emaileek esan zioten loreketaria zela. Bere burua apaintzea gustuko izango zuen, bada. Hona garai haietako ohituren pasarte argigarria:

Bertso auei buruz argibide auek eman dizkidate Erreenteriko Florentina Perez Salaberriak eta Monika Galarragak. Albaka ez da lorea; belar polit bat da, izan litekean usai goxoena duan belarra. Beraren izena erderazko alhahaca itzetik datorrena da, noski. Orain ez da olako oiturarik, baiña garai aietan albaka asko izaten zan. Udaberrian landare txiki bat tarro batean sartu, zabaldu eta aundi xamar egiten zan. Berde-berdea izaten zuan kolorea. Ari eskua pasa eta oso usai ona ematen zuan.

Neskatxak, agerian ez-ezik, barrenean ere eramaten zuten. Kolkoa askatu, sartu eta amasa artzean ura usai goxoa! Oraingo damak perfumeak bezela, ordukoak albaka nai izaten zuten. Xenpelarren illoba Joxepa Antoni ere oso loreketaria zan, eta urtero egiten zuan. (Letra lodia gurea).

Helduagoa zenean janzkeran eta kontserbadore samarra zen, zena baino zaharragoaren itxura zuela pentsa daiteke. Milagros Gazteluk dio “antigual” jantzita ibiltzen zela, lurrerainoko gona luze aspaldiko itxurakoak jantzita. Bozas Urrutiak Simon Etxeberriarekin bisitatu zuenean (1921) ere duen baino adin gehixeago alboratzen dio: “Irurogei bat urtekoa da Joxepa Antoni, bainan erne ditu oroimena eta irudimena” (301 or.). Gehienez ere 55 urte izango zituen bisitaren egunean. Alegia, pentsamenduz eta itxuraz ez da oso berritzaile agertzen Joxepa Antoni Xenpelar.

Joxepa Antoni Xenpelar bertsolaria bertso-plazan

Joxepa Antoniren bertsoek balio izan digute orain arteko bidea egiteko: Joxepa Antonirengana hurbiltzeko, izaeraz, ideologiaz, gizarte gaiez... zer ikuspegi zuen asmatzeko edo, asmatzen saiatzeko, gure XXI. mendeko talaiaitik begiratuta.

Uste dugu, nahiz zeharka izpi bat edo beste itzuri zaigun, zilegi dela berariaz galdetzea non, zergatik eta, batez ere, zertarako kantatu eta/edo idatzi zituen bertsoak Joxepa Antoni Xenpelarrek. Zerk eraman zuen Joxepa Antoni Aranberri Petriarena Fabrika handiko langilea bertsoen plazara.

Eta, honenbestez, iritsi gara Joxepa Antoni Xenpelarren ekarri nagusira, alegia, bertsoak asmatu eta kantatzera. Komeni da lehenbizi pixka batean pentsatzea zein leku eta girotan kantatzen zituzten bertsoak XX. mende hasierako bertsolariak: plaza, kalea, sagardotegiak... emakumeek oso eskura ez zituzten lekuak. Emakume bertsolariak etxea baino askoz leku gehiago ez zuen izango bertsoan jarduteko.

Joxepa Antonik etxea ez ezik, lantegia eta jostundegia ere bazituen bertsoleku. Hortxe entzungo zituzten eta kantatuko Joxepa Antoni Xenpelarren bertsoak entzuleek, emakumeek batez ere, eta hortxe paper muturretan idatzi bertsolariak berak eta lekukoek. Baina bertsolari honek beste urrats bat ere egin zuen: herrian nor bazen Enrike Elizetxearen enbidoari paperean idatzitako bertsoez ausardiaz erantzun eta baita zailago dirudiena: Resurreccion Maria Azkuek (Kirikiñoren laguntzaz) 1902 eta 1903an Bilbon plazaratzen zuen euskal aldizkari batera, *Ibaitzabala*, bidali kajistari erantzuteko bertsoak, argitara zitzaten.

Orduko bide eta komunikabideak ez ziren oraingoak –orduan Bilbo orain baino “urrutiago” egongo zen, horrela esatea badago– eta, batez ere, emakume askok (Joxepa Antoni bezalako ikasketarik gabeko zenbatek?) aukera edo adorea ere ez zuten izango bere lanak aldizkariren batera bidaltzeko. Joxepa Antonik bai, eta horrela emakume bertsolariantzat beste plaza bat irabazi zuen.

Hala ere, Euskaltzaleak elkarrekin omenaldia egin zion osaba Juan Frantzisko Xenpelarri 1931ko uztailaren 24an. 1931ko abuztuaren 5eko *El Día* egunkariak, 10. orrialdean, “Euskal orrian”, “Errenderi” izeneko kronikan kontatzen du Luis Jauregi “Jautarkolek” hizaldia egin zuela, Tolareberri eskolako Pedro Indabereak zuzenduta neska-mutikoek kantatu zutela, orduan 11 urte zituen Sabin Lizasok bertsoak egin zituela, Xenpelar hil zen etxean oroigarria jarri zutela... Juanito Zabaleta errenteriar bertsolariak ere “Xenpelarren oroimenez” bertsoak egin zituen. Inon ez dago Joxepa Antoni ilobaren izenik. Erdi itsututa zegoen orduko, baina inon ez dugu ikusi bertsolaria zen emakume honen, omentzen ari ziren gizona zaintzeagatik ama eta ahizpa betiko galdu zituen Xenpelar ilobaren arrastorik. Ez dakigu zergatik. Kaleko bizitza handirik egiten ez eta antolatzaileen ideologia eta Joxepa Antonirena oso gertukoak ez izatea ere, beharbada, izan daitezke arrazoiak.

Antonio Zavalak ere bere buruari galdetzen dio noiz hasi ote zen Xenpelar iloba bertsoan: 1902an hasi zelakoan dago, Enrike Elizetxearekin izan zuen gorabeheraren ondorioz. Alegia, pentsa daiteke eztenkada hura izan ezean ez zela

bertsogintzan hasiko? Orduan bertsoak argitaratzen hastea, litekeena da, baina kosta egiten da pentsatzea halako zaletasuna zuen emakume honek ia berrogei urte itxoitea bertsoak kantatzen (bestelakoa da idaztea) hasteko. Egia esan, Zavalak entzun eta jasotako bertso asko noizkoak diren ere ez dakigu eta, gainera, gisa bateko nahiz besteko hipotesia izan, ez dugu egiaztatzerik izango noiz hasi zen bertsoak sortu eta kantatzen.

Baina Zavalaren ustea egia izatekotan, Enrike Elizetxeari eskerrak eman beharrean gara Joxepa Antoni Xenpelar jendaurrean kantuan jarri zuelako. Eta Elizetxeak Joxepa Antoni neskazaharrari ere bai, emakume honekin izandako eztabaidak bultzatu baitzuen Elizetxea idazlea ezagunagoa izatera, Iñigo Imaz historialariak “Enrike Elizechea Arrieta (1873-1947)” 2006. urteko *Oarso* urtekarian dioen moduan.

Hitz batean esateko, ematen du gisa bateko bertsoak behintzat, norbaitek edo zerbaitek akuilatuta egin zituela.

Horietako batzuk, gainera, aski helburu pragmatikoez eginak dira: gutun, mandatuen eginkizuna betetzen dute.

Gisa horretakoa da hauxe: Errenteriatik Oiaun baserrira, Joxepa Antoniren aitaren baserrira, bi neskata zahoazen Eguberri-festak pasatzera: bata, bertako alaba; eta bestea, laguna. Aurretik, bidera ateratzeko eskatzeko, bertso hau bidali zuen Joxepa Antonik. Pentsatu behar da hara joateko trenez joaten zirela Elgoibarraino:

*Elgoibartikan pentsatzen dute
egitia biajia,
batetik dala egokiyago,
bestetik berriz merkia;
eta gañera nai lutekela
bertsuetan esatia
astuarekin ateratzeko
artzera ekipajia.*

Beste honetan, meza berrira gonbidatu dute Joxepa Antoni, baina zergatik ezingo den joan adierazteko egin du bertsoa: zaharra eta erdi itsua dago.

*Beñere ez da berandurikan,
ordua da allegatu,
zure eskutitz kariñosua
lenguan genuen artu;
zure anaiak bere erriyan
nai zuela zelebratu,
egun eder au or pasatzera
gaituzula inbitatu,
zure parentel onragarriya
ez nuke nai desonratu,
zarra bainago, erdi itxua,
zuk orrekin entenditu.*

Aipagarria da mojen inguruak hartzen duen lekua. Lehen jaso dugu Julianari egina. Beste honetan, berriz, Don Jose apaiza hil zela eta, haren arreba mojari bidali dio gutuna:

*Ez nuke naiko bertso abekin
penatutzia geiegi,
Errenterian denak dakigu
zeruban degula ... [ezin da ongi ulertu]
nere partetik letu bezaizka
komunidade danari,
ezagutzia deseatzen det,
eskumunak guztiari.*

*Ez nau arritu eskatutzia
Madriari lizentziya,
pensatu beza zein illuna dan
nere intelijentziya;
ez nago birtutiakin
bera bezela jantziya,
esan bezaio barkatutzeko
nere atrebientziya.*

Ildo honetako luzeena etxeko Matilderi egina du “Ama Jenerosari” (1921 baino lehen egina). Lehen ere ahotan hartu dugu, 1920 aldera etxean zein bizi ziren hizketagai izan dugunean.

Zoriondu, agurtu, eskerrak ematea... Halakoak erruz egin omen zituen; enkar-guz bat baino gehiago, seguruenik. Zavalak, antza, adibide batzuk besterik ez zituen jaso edo eman.

Ezkontzera zihoazela eta, “Serapio Mendarte eta Eduvigis Casares” ezkongaei haxe kantatu zien (1922):

*Gure aldetik zorion asko,
Mendartetar familiya,
pozkidaz gaude ikusitzeko
matrimonio berriya;
dantzatu dezu kafe-zartana
erabilliyaz begiya,
zure onduan pasatzen baitzan
damatxo umill argiya,
eta polliki-polliki biyok
egin dezute kabiya.*

Jaiotegunean zoriontzeko. Bizente Retegi Iriberrri Musarro oiartzuar bertsolaria-
ren erraina Luxiana Joxepa Antoniren laguna zenari:

*Osasun onarekin
zure zoriona,
biyotzetik deseo
dizut, Luxiana;
munduan igarorik
zeruko fortuna,
an ere izan nai det
zurekin laguna.*

Jaunartzea egin duen Enrike Elizetxearen seme Juan Mariri, "Enhorabuena".

*1/ Suponitzen det pozez beterik
danok zeratela ari,
zuen biotzen naitasun danak
azalduaz semiari;
lendabiziko enhorabuena
aitari eta amari,
baita zuri're, goguan izan
gaurko eguna, Juan Mari.*

*2/ Oso ederki azaldu zera,
zaude txit gora jasua,
etzegoen gaur zuri begira
zure amona gaxua;
zurekin beti izan dedilla
Trinidadeko usua,
eta izan zaitez esan dituzun
biziyo danen mazua.*

Hau ere helburu berekoa da: Adiskide batzuen alabatxoak lehen jaunartzea egin du. Geroxeago berriz ere aipatuko dugu:

*Adiskide on, biyotz leiala
beti dirazu agertu,
zure pozkida gozatsuetan
nitaz zerade oroitu.
Zure alaba biyotzekua
zaizunian komulgatu,
afari eder, postre goxua
dirazu erregalatu.*

*Jakob bat iya egin zerade,
ume-talde ugariya,
nere gogoko senar-emazte,
famili maitagarriya.
Ez dakit nola eskerrak eman
ni izanik ain urriya,
Jaun Zerukuak emango dizu
karidadien sariya.*

Jose Goñi zenak gogoan jaso eta Zavalari kantatutako batean ere, ez dakigu nori egin zizkion, baina badirudi neska jaioberriaren familia zoriondu eta umetxoari desio onak bidaltzeko egina dela:

*Oraiñ eman dirate
notizi berria,
añaditu zaiela
beon familia;
errezatu dizkiyot
sei Abe Maria,
nexka izan deiela
umil ta garbia.*

Lehen ere aipatu dugu bertso hau. Hil den Don Jose apaiza agurtzeko. "Don Joseri":

*1/ Pena aundi bat ezin kendu det
gau eta egun burutik,
badaki nola faltatu zaigun
sazerdote bat mundutik;
negar gogotik egiñak gera
difuntuaren atzetik,
obretan ala ekusi degu,
pena degu biotzetik.*

*2/ Dudarik gabe berak zerutik
eman ziyen baloria
negarrikanen etzuten egin
bañan aien doloria!
Kuardro triste au ekusi eta
negarrez zeguen jendia,
esaten zuten: "Ai, gure apaiz
puntuala ta noblia!"*

4/ *Persona ona eta justua
onek bear zuan izan,
alaxe ziran bere etxeko
serbitzari batek esan;
umildadea erakutsiyaz
puntuala txit elizan,
penitentiak ortxen dabiltza
ardi galduaren gisan.*

6/ *Zeñaren penaz gure biotzak
negarrez ezin dira ase,
penak sufritzen baldin badago
atera ezazu San Jose;
danen partetik eskatzen dizut,
orrentxen gerade gose:
gauza gutxien faltan badago
requiescat in pace*

Eskerrak emateko ere eginak ditu bertsoak, zerbait (sagardoa edo/eta jatekoa batez ere) erregalatu diotenei. Adiskidearen alabatxoaren jaunartzea zela eta jaso dugun bertsoan esker oneko hitzak ditu afaria dela medio (afari eder, postre goxua / dirazu erregalatu), Altzako Mirazueneko etxekoandreaki ere bai, sagardoa opari egin dio eta:

*Alabak zintzo egin
ziran enkargua,
bertso batez eskerrak
ematera nua;
asko gustatzen baitzait
neri sagardua,
eskerrik asko, nere
andre ondradua.*

“Enhorabuena” bertsoan ere hala egiten du. Arestian jaso ditugun Elizetxeatarren jaunartzea zela eta haien eskerrak ematearen erantzuna da Joxepa Antonioren haxe: kazuela goxoa zegoela eta eskerrik asko.

*Itz neurtu polit kariñosuak
dizkidatzute biali,
Senpelartarra izanagatik
zuen aldian deus ez ni.
Orren egoki ez bada ere
eskerrak nairik biali,
baita ere saltxa kazuela ontan
jartzen aritu danari.*

Jose Goñik kantatutako bitan ere ikusten da eskerrak ematea dela bertsoon helburua. Bigarrenean, gainera, lagunak eskatuta ari dela egiten dio. Ez dakigu norentzat ziren:

*Ez dakit nola eman
eskerrak bedorri,
neretzat izan duen
biyotz leial orri;
errezatu dizkiyot
errosariyo bi,
biarrian badago,
beorren amari.*

*Gure nagusi Jaungoikozkuak
ederki pentsatu dute,
bedorrek utzitako limosnan
danok izan degu parte;
orain eskerrak nik ematia
nere lagunak nai dute,
deseatuak mundu onetan
osasuna ta asko urte,
agur, señora karitatiba,
agur Madalenak arte.*

Kronikagilea ere bada Xenpelar; osabaren ezpala izaki. Gizarte gaiak ateratzen dira han eta hemen bertsoetan. Lehen jaso ditugu Gerrate Handiaren gainekoak. Neskazarrei buruzkoa ere hemen koka daiteke.

Era berean, hemen aipa dezakegu *Fabrika handian* kantatzen ibili zelako bertso-lekuko bakarra. Hartzailleak emakumeak dira, antza, eta, gainera, Errenteria eta inguruko emakume bertsolari gehiagoren oihartzuna dakarte bertsook: Manuela Fanderikoa eta Añarbeko alaba.

Joxepa Antonik:

*Terraza onetara
naizenian iyo,
bertsua botatzeko
Manuelak diyo;
Fanderitarrarentzat
nik ez det baliyo,
nere tokira nua
seriyo-seriyo.*

***Manuela Fanderitarraren itxura
eginez, Joxepa Antonik:***¹⁴

*Fanderitarra naiz ni,
ez dizut ukatzen,
bañan korta xamarra
bertsuak kantatzen;
damutu zait asiya
Xenpelar tentatzen,
ara emen Añabitarte
ta oni bat botatzen.*

Eta bestelako kronika modukoak ere eginak ditu. Antonio Pildain Zapiain, gero urte luzeetan Kanariar Uharteetako gotzaina izango zena, Lezo sorterrira etorri zen. Jantzi more dotoreak gorde eta sotana beltzez jantzita ikusi zuela, Joxepa Antonik honela kantatu zuen:

*Iturri baten aldamenian
agertu dan landaria,
bioleta da; ezagutzen da:
maite du umildadia;
ostotxo berde tartian dabil
gorde naian koloria,
bañan dakigu bioletatxo
loria dala moria;
agertu bedi bere erriyan,
pozez dago-ta jendia.*

Eguneroko bizimoduaren arrasto umorez zipriztindua da “*Rikardo arakiña*” bertsoen ingurukoa.

Eskatzeko ere egiten ditu bertsoak. Ikusi dugu nola mintzatu zen neskazarren alde, batez ere adineko neskazarrei laguntzeko asmotan. Badirudi emakume honek zerbait eskatu behar baldin bazuen ez zuela aise atzera egiten.

14. [M0].

“Markolako patatak” ere gisa horretakoa da. 1936ko gerratearen ondoko 1941-1942 urteetako goseteen Bagues Fabrika handiko nagusia Joxepa Antoniz ez zen oroitu denek horren premiazkoak zituzten pataten banaketan, bizi guztia (ia 60 urte) lan eta lantegi hari eman ondoren. Eskea da hauxe eta baita urte haietako gosetearen eta herri xehearen beharren erretratua ere.

Ermita oso gaizki dagoela eta konpontzeko eskea (deia?) ere egiten du “Madelenako ermita” bertsoan (1940). Bide batez esan ere badio (oso errima aberatsa ez duen) 2. ahapaldian bi gerrate bizi izan dituela bertsolariak (Bigarren Karlistaldia (1872-1876) eta 1936koa (1936-1939) izango ditu gogoan) eta hortxe, elizño horretantxe, bilatu duela babesa, gainera.

1/ Bertso berri batzuek
nai nituke jarri,
Errenteriko seme-
alaba denari:
ermita bat daukagu
danon lotsagarri,
ia ipintzen degun
txukun edo garbi.

2/ Geienak zor diogun
ermita da ori,
guri mesede asko
egiña da ori;
gerrateko denborak
pasatu ditut bi,
gure refujiyua
izandu zan ori.

10/ Ermita ori dago
abandonatua,
ittozura aundiakin
olak usteldua;
purrukatua berriz
oso tellatua,
kanpuan ta barrena
igual erasua.

11/ Begira egondu naiz
ateraño juanta,
negarrez zeguela
uste nuen santa;
neronek ere asko
ezpanuen falta,
ikusirik ermita
tristiaren planta.

Historia gertakari batean oinarrituta badu bertso bat, “Ama Guadalupekoari”, Guadalupeko borroka kontatzen du historiako datuak emanaz (1679an frantsesek Hondarrabiari eraso...). Berezi samarra da bertso hau; ez da gainerakoen modukoa.

Gertakari bat da tartean hurrengo honetan ere, baina erlijioaren indarra gailen du “Kastigu tristia”, 1902an Ibaizabalek argitarauak. Galiziako blasfematzaile baten pasadizoan oinarrituta dago. Joxepa Antonik bide berean erlijioa zaintzearen alde egiten du eta euskara goratzen du: euskara izan daiteke salbazibidea, maldiziorik ez du eta. Lehen ere jaso dugu bertsoa:

Zu gure alde izan zaitezen
guk arrazoi bat daukagu:
gure izkuntzan maldiziu au
ezta oraindik azaldu.
Kastillanuan itz gaiztu ori,
ai!, al baliteke galdu,
arrazoiakin Ibaizabal-ek
nai du euskera zabaldu

Eguberrietako egin zuen kantu hau ere jaso dago:

*“Pakia lurrian ta
goietan zerua,
borondate oneko
pertsonek pagua”.
Au kantatzen jeisten da
zeruko aingerua;
Jesusek giyatzen du
pertsonek onradua
ondo gobernatzera
gauza ta dirua;
ez diyo faltatuko
bere agindua:
pakia lurrian ta
goietan zerua.*

Iritsi zaizkigun bertso gehienak erlijiozkoak dira. Batzuetan erlijio aipamen edo gairen bat ere tartekatzen du gai nagusia bestelakoa duen bertsoan, baina beste askotan, hasi eta buka erlijioa dute gunea. Era berean, ez du ematen erlijio bertsoak eskatuta egin zituenik, ez du esaten behintzat inoren eskariz egin zituela; fedeak, sinesmenak akuilatuta egingo zituen, apika.

Ildo honetan, aipagarria iruditzen zaigu bertso horietako batzuk *Ibaizabal* aldizkaria bidali izana argitaratzeko: “Tota pulchra...” (1902.05.25) eta “Ama Birgiñari” (1902.12.14) biak 1902an argitaratuak. Enrike Elizatxearekin eta “kajista” delakoarekin hartutako eskarmentuak zoildu zuen emakume bertsolaria eta papezko plazara bultzatu?

Aldizkarietan argitaratu gabeko askotxo ere jasoak ditu Antonio Zavalak (paper mutur, blok eta antzekoetatik). Besteak beste, “*Mariaren alaba batek Jaungoikuaren eta bere amari*”, “Don Joseri”, “*Bi sermolari*”, “Ama Guadalupekoari”, “Errenterian uztaren laubean milla ta bederatzireun ta hoge ta seigarren urtean egin zan prozesiyuari”...

Hori guztia adierazteko darabilen hizkeraz bi hitz egin nahi ditugu. Espero izatekoa den bezala, ez du oso hizkera landua erabiltzen, oro har. Errenteria eta inguruko hizkeren islak baditu (*ekusi*, *senargairikanen*...), baina baditu tartekatuta *eunkida*, *pozakida*, *kondaira*, *irakurri* bezalako hitz landu, “garbiak” eta joskera bihurri samar bat edo beste (Zeñaren penaz gure biotzak / negarez ezin dira ase, / penak sufritzen baldin badago / atera ezazu San Jose) ere bai. Euskaraz irakurri izanaren eta bertsolariaren asmo estetiko-estilistikoaren adierazle? Ildo horretan, berriz aipatzekoak dira aldizka egiten dituen konparazio-metaforak eta umore zipriztinak: aipatutako baltsamoarenaz gain, esate baterako, seme-alaba asko izan dituen gizonari “Jakob bat egina” dagoela esan, gotzaina landare bioleta da...

1
 1. *Chlorophyll*
 2. *Chlorophyll*
 3. *Chlorophyll*
 4. *Chlorophyll*
 5. *Chlorophyll*
 6. *Chlorophyll*
 7. *Chlorophyll*
 8. *Chlorophyll*
 9. *Chlorophyll*
 10. *Chlorophyll*
 11. *Chlorophyll*
 12. *Chlorophyll*
 13. *Chlorophyll*
 14. *Chlorophyll*
 15. *Chlorophyll*
 16. *Chlorophyll*
 17. *Chlorophyll*
 18. *Chlorophyll*
 19. *Chlorophyll*
 20. *Chlorophyll*
 21. *Chlorophyll*
 22. *Chlorophyll*
 23. *Chlorophyll*
 24. *Chlorophyll*
 25. *Chlorophyll*
 26. *Chlorophyll*
 27. *Chlorophyll*
 28. *Chlorophyll*
 29. *Chlorophyll*
 30. *Chlorophyll*
 31. *Chlorophyll*
 32. *Chlorophyll*
 33. *Chlorophyll*
 34. *Chlorophyll*
 35. *Chlorophyll*
 36. *Chlorophyll*
 37. *Chlorophyll*
 38. *Chlorophyll*
 39. *Chlorophyll*
 40. *Chlorophyll*
 41. *Chlorophyll*
 42. *Chlorophyll*
 43. *Chlorophyll*
 44. *Chlorophyll*
 45. *Chlorophyll*
 46. *Chlorophyll*
 47. *Chlorophyll*
 48. *Chlorophyll*
 49. *Chlorophyll*
 50. *Chlorophyll*
 51. *Chlorophyll*
 52. *Chlorophyll*
 53. *Chlorophyll*
 54. *Chlorophyll*
 55. *Chlorophyll*
 56. *Chlorophyll*
 57. *Chlorophyll*
 58. *Chlorophyll*
 59. *Chlorophyll*
 60. *Chlorophyll*
 61. *Chlorophyll*
 62. *Chlorophyll*
 63. *Chlorophyll*
 64. *Chlorophyll*
 65. *Chlorophyll*
 66. *Chlorophyll*
 67. *Chlorophyll*
 68. *Chlorophyll*
 69. *Chlorophyll*
 70. *Chlorophyll*
 71. *Chlorophyll*
 72. *Chlorophyll*
 73. *Chlorophyll*
 74. *Chlorophyll*
 75. *Chlorophyll*
 76. *Chlorophyll*
 77. *Chlorophyll*
 78. *Chlorophyll*
 79. *Chlorophyll*
 80. *Chlorophyll*
 81. *Chlorophyll*
 82. *Chlorophyll*
 83. *Chlorophyll*
 84. *Chlorophyll*
 85. *Chlorophyll*
 86. *Chlorophyll*
 87. *Chlorophyll*
 88. *Chlorophyll*
 89. *Chlorophyll*
 90. *Chlorophyll*
 91. *Chlorophyll*
 92. *Chlorophyll*
 93. *Chlorophyll*
 94. *Chlorophyll*
 95. *Chlorophyll*
 96. *Chlorophyll*
 97. *Chlorophyll*
 98. *Chlorophyll*
 99. *Chlorophyll*
 100. *Chlorophyll*

[illegible]

3

5

Enda-lye. terti dedin
Tembilata kantiangpa
Telpa II gawamak waja
Luta men gawilaba
Teti padebat ora o betan
Muteke sendangra
Lutani ed dya inka kauduka
Bere bunke kora

6

Wai mawetek am wila
Laguta kanti dedin
Lusata wita wanga sala
Luskraven dedin
Meldurwan mendi gawara
Cta waman tiantan antia
Balamukata winder waja
Lama tiantan dedin

4

1

1. Diketahui bahwa orang-orang yang
suka beribadah
akan mendapat pahala
yang banyak
dan akan masuk surga
jika mereka meninggal
dalam keadaan beriman
dan beribadah.

2

2. Diketahui bahwa orang-orang yang
tidak beribadah
akan mendapat hukuman
yang berat
dan akan masuk neraka
jika mereka meninggal
dalam keadaan kafir
dan tidak beribadah.

5

11

Lau ingenu elidin ionu
 atudikan opentura
 Hitekanbon amon siglen
 Bomo ee llatana
 Milla seima lareneta
 Amakam san bakatun
 Pedakit bada sigalekan dan
 Ewan dekalabratun

12

Milla saffina imigita
 Amakam san bakatun
 Bomo ee llatana
 Lau elia elia
 Milla bakatun elia ionu
 Bato san bakatun
 Lau alia sillanaskunak
 Ewan bakatun elia ionu

6

11

Lau ingenu elidin ionu
 atudikan opentura
 Hitekanbon amon siglen
 Bomo ee llatana
 Milla seima lareneta
 Amakam san bakatun
 Pedakit bada sigalekan dan
 Ewan dekalabratun

12

Milla saffina imigita
 Amakam san bakatun
 Bomo ee llatana
 Lau elia elia
 Milla bakatun elia ionu
 Bato san bakatun
 Lau alia sillanaskunak
 Ewan bakatun elia ionu

7

11

Lau ingenu elidin ionu
 atudikan opentura
 Hitekanbon amon siglen
 Bomo ee llatana
 Milla seima lareneta
 Amakam san bakatun
 Pedakit bada sigalekan dan
 Ewan dekalabratun

12

Milla saffina imigita
 Amakam san bakatun
 Bomo ee llatana
 Lau elia elia
 Milla bakatun elia ionu
 Bato san bakatun
 Lau alia sillanaskunak
 Ewan bakatun elia ionu

8

11

Lau ingenu elidin ionu
 atudikan opentura
 Hitekanbon amon siglen
 Bomo ee llatana
 Milla seima lareneta
 Amakam san bakatun
 Pedakit bada sigalekan dan
 Ewan dekalabratun

12

Milla saffina imigita
 Amakam san bakatun
 Bomo ee llatana
 Lau elia elia
 Milla bakatun elia ionu
 Bato san bakatun
 Lau alia sillanaskunak
 Ewan bakatun elia ionu

Ataltxo hau bukatzen joateko esan dezagun Joxepa Antoniren mundua, plaza, emakumeen mundua dela batez ere, eta, behar bada, horrexegatik, askotan bertsoaren hartzailea emakumea da (jostundegiko neskak, moja doazenak, lagunak, fabrikako langileak...). Alegia, Joxepa Antoniren bertsoek erakusten digute emakumeen arteko komunikazio mota bat. Aipagarria da, ez baita askotan gertatuko bertsogilea emakumea eta hartzailea ere emakumea izatea. Hala ere, ikusi dugu beharrezkoa iruditu zaionean ez duela erreparorik izan gizasemeekin lehian aritzeko: Elizetxea, kajista, Bagues, *Ibaizabal* astekariko irakurleak...

Joxepa Antoni Xenpelar. Xenpelartarren katemaila

Ez genuke lan hau bukatu nahi hasierara itzuli gabe. Iturrietatik abiatu gara eta iturrira goaz berriz ere. Xenpelartarra da Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, Xenpelar baserritik Erreteriarra bizitzera etorri zen kate hartako maila; halaxe ikusten eta izendatzen du bere burua. Eta halaxe agurtzen du laguna bizitzaren azken urtean.

*Adios Juliana,
adios betiko,
Xenpelarrek etzaitu
geiago ikusiko;
bañan zu aztutzia
ori ez du naiko,
amak eskutitztxo bat
dizu bialiko:
Xenpelar il dela ta
enkomendatzeko.*

Eta Joxepa Antoni Xenpelarri esker iritsi zaizkigu, hain zuzen ere, osaba Juan Frantzisko Xenpelarren bertso asko.

Ala, biak ere [Florentina eta Monika] erreteriar bertsolari aundiaren bertsoak eta gertaerak aren illobaren [Joxepa Antoniren] aotik ikasi zituzten. Gero, nik jakinduri orren eske agertutakoan, aien borondateak eta nere gustoa egin naiak neurrik etzuten.
(Zavala 1993: 10).

Horien artekoa da, esate baterako, osabak Musarrokekin izandako bertso-lehia (“Aizak hi, mutil mainontzi!”). Ilobak etxean jaso zuen eta handik lau haizeetara zabaldu zen gero.

Mikel Laboak sonatu egindako “Pasaiako herritik dator notizia” ere badi-rudi Joxepa Antoniri esker gorde zela. Florentina Perezek honela adierazi zion Zavalari:

Gu ere, neska koxkorretan, Pasaira joaten giñan Santiagotan ango zezenak ikustera, eta Joxepa Antonik, Xenpelarren illobak, onela esaten zigun: -Gaur ere San Juana al zoazte? Joan, joan! Leen ere an festa pollita pasea da eta zoazte! Or ibilli bearko dezute itxasora zeuen burua bota eta larri! Joan bestela mendira; ikusiko dezute zer daukazuten atzetik: zezena! Pasaiko gertaera ori bein baño geiagotan kontatu zigun.

Eta Zavalak eransten du:

Agian, kontraera polit ontan bi jarrialdietako gertaerekin bat egiten da. Baiña Xenpelarren illobak ola kontatzeak bertsoak bere osabarenak izango dirala pentsa arazten digu. Eta ori ondo kontuan artzekoa da, bertsoak ez baitute esaten aita nor duten.

Beste honetan ere Joxepa Antoniren ardura da tarteko.

Andanzas y mudanzas de mi pueblo izenarekin, 1921 urtean argitaratu zana. Xenpelarren illobari egin zion bisitaz ere itzegiten du atal batean. Onela esaten du: “Tengo a la vista una multitud de Bertso berriac, Senpelarrec jarriac, en los que se hace alusión a todos los grandes problemas morales que se agitan en el seno de la Humanidad”.

Ezbeharrak ekarri zuen, ordea, Joxepa Antonik urteetan gordeak eduki zituen osaba Xenpelarren bertso guztiak gureganaino iritsi ez izana. Evaristo Bozas Urrutia da tarteko, gainera. *Andanzas y mudanzas de mi pueblo* 1921eko liburu horretan kontatzen du nola joan zen Simon Etxeberria lagun zuela Joxepa Antoniren etxera eta nola eman zizkion honek zeuzkan osaba Xenpelarren “paperak”:

Gero «Xenpelar»ez mintzo gara eta haren bertsoak ematen dizkit kopiatzeko. Simonek bere gain artzen ditu” (304. or.).

Jakina da gero Bozas Urrutia Argentinara joan zela eta, bat eta beste, nahiz Antonio Zavala saiatu zen Rodolfo Bozas Urrutia semearen bitartez paper galdu haien argibidea bilatzen, ez zuela lortu. Paper haiek galdutzat eman behar ditugu, Joxepa Antoniren gordetzeko ahaleginak ahalegin.

Iturriz iturri auzolanean

Joxepa Antoni Aranberri Petriarenaren plaza, mundua, ez da gure mundua. Haren bizimodua, ohiturak, balioak, zaletasunak, sinismenak, ideologia... ez dira, ia seguru, XXI. mendeko (errenteriar) gizon eta emakume askorenak. Joxepa Antoniren garaiko euskaldun askok, gizon-emakume askok ere ez zuten gizartea, giza harremanak, helburuak, itxaropenak Joxepa Antonik bezala pentsatzen,

bizitzen eta sentitzen. Eta, hala ere, XXI. mende honetan Joxepa Antoni Xenpelarren iturria biziberritzeko saioa egin dugu, auzolanean.

Ez dira horrenbeste mende euskaraz idazten hasi ginela eta asko ere ez dugu idatzi, ez tamainan, ez gaien luze-zabalean eta ugarian. Baina horixe iritsi zaigu, horixe daukagu eta horixe begiratu behar diogu, besterik ez bada ere, egoera aldeko izan gabe, ospe handirik ez zuen hizkuntza hau, euskara, hautatu zutelako esan behar zutena plazaratzeko. Emakumeek –esan behar al da?– are zailagoa zuten bere ahotsa etxetik karrikara ateratzea.

Gerokook ahalegin eta iturri horiei guztiei esker komunika gaitezke eta idatz dezakegu nahi eta ahal dugunaz euskaraz. Baita haiek utzi digutenetik betetzen gaituenaz eta horren gertu ez dugunaz ere.

Ez da beti erraz egiazko aberastasunak gezurrezkoetatik bereiztea, eta halaz guztiz ere behar-beharrezkoa da bereizkuntza hori. Egia zor diogu euskaldunok geure buruari aurrenik eta besteri gero. Egiaaren gainean landatua izan den jakitea, harri-gainean eraiki zuten etxearen antzera, iraunkorragoa izango da urteen buruan. Baita probetxuzkoagoa ere guretzat, besterik uste izan arren norbaitek.

Iturburueta jo behar da hiztegi-lanetan, beste edozeinetan bezala, bide erdiko berriketei jaramonik egin gabe. Alfer-lana baita, eta okerrera gaitzakeena, ahoz aho dabiltzan esanak biltzea, nondik sortuak diren eta nork zabalduak galdetu gabe. Iturribilatze hau, etxe-garbiketa bezala, ez da beharbada egunoroko eginbeharra, bai, ordea, noizean behin –eta zenbat ere maizago hobe– egitekoa, hautsak eta pipiak jango ez bagaitu.

Koldo Mitxelena, “Euskal hiztegi-gileak XVII-XVIII. mendeetan”. 1961eko urtarrilaren 22an Erreenteriako Udaletxean eginiko Euskaltzaindian sartzeko hitzalditik hartua.

Eskerrik asko, gutxienez, hauei guztiei

Erreenteriako Udaleko Berdintasunerako kontseiluari eta Deustuko Unibertsitateari lan hau egiteko eman didaten aukeragatik.

Iturritz iturri egin dugun bide honetan bidaide eta auzo izan zaituztedan guztioi: Matxio, Felix Arrieta eta Goñitarrei, irudi begi-aringarriengatik. Jon Bagues, Jon Miner eta Mirari Perez Gazteluri, doinu belarri-gozagarriengatik. Paper zaharrak maitatu, gorde eta denon eskura jartzeagatik, Pako Etxebeste Erreenteriako Maria Donea Zeruratzearen parrokiako bikarioari, Donostiako Elizbarrutiko Museo historikoko langileei, Koldo Mitxelena kulturuneko Frantxi Landatxe, Izaskun eta Joxiri eta Erreenteriako Udaletxeko artxiboko Ruth eta Leori.

Eta, azkena, baina ez ezerezena, etxekoei, Milagros amari, eskerrak eta maitasun guztia.

CDan kantatutako bertsoak

Bertsoaren izena	Ahapaldia	1993ko edizioko orrialdea
Alemanari	1, 4, 7, 8	575
Ama Birjinari	1, 8, 9	571, 572
Bi sermolari		599
Fabrikan bertso kantari Osoa		581, 582
Gerra europeari	3, 5, 6	573
Ingalaterrari	1, 2, 4	574
Madalenako ermita	1, 2, 3, 5, 7	588, 589
Mariaren alaba	1, 3, 5	583
Markolako patatak	1, 4	587
Neskazaharrak “Kajista bateri”		565
Rikardo harakina		585

Bibliografia

- ARANBERRI PETRIARENA, Joxepa Antoni (1902). “Azaldea”, *Ibaizabal*, 1902.04.13: 3.
- ARANBERRI PETRIARENA, Joxepa Antoni, Dominika (1902). “Neskazarrari”, *Ibaizabal*, 1902.05.11: 1.
- ARANBERRI PETRIARENA, Joxepa Antoni (1902). “Tota puclhra”, *Ibaizabal*, 1902.05.25: 1.
- ARANBERRI PETRIARENA, Joxepa Antoni (1902). “Kajista bateri”, *Ibaizabal*, 1902.05.25: 3.
- ARANBERRI PETRIARENA, Joxepa Antoni (1902). “Kajistari”, *Ibaizabal*, 1902.06.15: 3.
- ARANBERRI PETRIARENA, Joxepa Antoni (1902). “Kastigu tristia”, *Ibaizabal*, 1902.11.23: 3.
- ARANBERRI PETRIARENA, Joxepa Antoni (1902). “Ama Birgiñari”, *Ibaizabal*, 1902.12.14: 1.
- BOZAS URRUTIA, Evaristo (1921). *Andanzas y mudanzas de mi pueblo*. [1976₂. BOZAS URRUTIA, Rodolfo. Donostia: Donostiako Aurrezki Kutxa].
- ELIZECHEA, Enrike (1902). “Neskazarrak”, *Ibaizabal*, 1902.04.06: 3.
- ELIZECHEA, Enrike (1902). “Neskazarrak”, *Ibaizabal*, 1902.04.13: 2-3.

- ELIZECHEA, Enrike (1902). “Mutillzarrak”, *Ibaizabal*, 1902.06.08: 2-3.
- IBAIZABAL. (1902). “Bertso batzaldia”, *Ibaizabal*, 1902.02.09: 3-4.
- IMAZ, Iñigo (2006). Enrique Elicechea Arrieta (1873-1947), *Oarso*: 100-104.
- IMAZ, Iñigo (2007). *Un liberal entre dos siglos. Enrique Elizechea Arrieta, (1873-1947)*. *Bilduma* 20.
- IRIONDO, Joxemari. (2010). Antonio Zavala Echeverria (1928-2009), *Bidegileak*, 61. Eusko Jaurlaritza.
- ITURRALDE (1931). “Euskal orria. Errenderi”, *El Día*, 1931.08.05: 10.
- JAUREGI, Luis (1958). *Xenpelar Bertsolaria Bizitza ta bertsoak*. Zarautz: Kuliska sorta, Itxaropena Argitaldaria.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos (ed.) (1996). *Erreneriako historia*. Erreneria: Erreneriako Udala.
- LARRAÑAGA, Carmen (1997). “Del bertsolarismo silenciado”, *Jentilbaratz* 6: 57-73.
- LARRAÑAGA, Carmen (1999). “Bertsolaris destacadas”, *Euskonews & Media* 56: 3 (1999 / 11 / 26 - 12).
- LEGORBURU, Iñigo (2011). “Joxepa Antoni Aranberri, Xenpelarren itzalpean argi-izpi bat”, *Oarso*: 90-93.
- LEKUONA, Juan Mari (1987). Manuel Lekuona (1894-1987). *Bidegileak*, 1. Eusko Jaurlaritza.
- MAKAZAGA, Juan Jose (1931) *Xenpelar'en bertsuak*. Erreneria: Makazaga.
- MENDIZABAL, Agustin (2012). “Luis del Puerto, espartingile kantaria (Erreneria 1857-Andoain 1934)”, *Oarso*: 172-182.
- PEREZ GAZTELU, Elixabete (2002). Luis Jauregi *Jautarkol* (1896-1971), *Bidegileak*, 27. Eusko Jaurlaritza.
- PEREZ GAZTELU, Elixabete (2010). Juan Frantzisko Petriarena *Xenpelar (1835-1869)*, *Bidegileak*, 61. Eusko Jaurlaritza.
- VALVERDE, Lola (1985). “Rentería: demografía y sociedad. 1888-1905”, *Oarso*: 29.
- XENPELAR bertso eskola. (1995). *Bertsolariya* alea.
- ZAVALA, Antonio (1967). Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. *Auspoa* 63-64.
- ZAVALA, Antonio (1968). Erreneria'ko bertsolari zaarrak. *Auspoa* 74-75.
- ZAVALA, Antonio (1969). Xenpelar bertsolaria. *Auspoa* 88-89-90.
- ZAVALA, Antonio (1993). Xenpelar eta bere ingurua. Auspoaren sail nagusia. Senda.

Artxiboak

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo historikoa.

Errenteriako Maria Donea Zeruratzearen elizako artxiboa.

Errenteriako Udaleko Artxiboa.

Koldo Mitxelena liburutegiko Antonio Zavalaren ondarea.